1919tik | 2.551 zenbakia | 2017/04/30 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

Euskal herritarrak 1936ko gerratik ihesi Hendaiako hondartzan.

HARTU GINTUZTEN EKAR DITZAGUN

ERREFUXIATUEN ALDEKO MARTXA GERNIKAN

FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK: MACRON NEOLIBERALA PRESIDENTETZARAKO BIDEAN

BIDEHUTS ZIGILUAK 10 URTE: MUSIKARIAK ASANBLADAN ANTOLATUTA

LARRUN: PARISKO KOMUNATIK EGUNGO MATXINADETARA, KRISTIN ROSS BIDELAGUN

02551
9 771402 139093

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

ARGIA

2.551 zenbakia | 2017/04/30

PANORAMA

4 Asteko argazkia

6-9 Albisteak

7 Hor dena gailu

10 Net Hurbil: El Salvadorrek metalen meatzaritza debekatu du

IRITZIAK

17 Estitxu Garai Artetxe

18 Endika Alabort Amundarain

19 Jose Ignazio Ansorena Itziar Bardaji Goikoetxea

20 Pablo Sastre

Emmanuel Macron eta Marine Le Pen lehiatuko dira Frantziako presidentetzarako hauteskundeen bigarren itzulian. (ARGAZKIAK: CHRISTIAN HARTMANN / REUTERS)

34 DENBORAREN MAKINA

36 BIZI BARATZEA

38 ARGIA KOMUNITATEA

48 KULTUR KRITIKA

50 ZUZENEKO EMANALDIA

51 DENBORA-PASAK

52 ARGI-KONTRA: HELOISE NIO

54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: L´ILLUSTRATION

SAKONEAN

12 | Ibai Atutxa, literatur ikertzailea: "Desira ez da bakarrik nor maitatu" / Danele Sarriugarte Mochales

22 | Ongi Etorri Gernika 2017: Zer egin genuen galdetzen digutenean, zer erantzun izateko / Marijo Deogracias Horrillo

27 | Presidentetzarako hauteskundeak: Frantziak berealdiko "iraultza" behar du / Mikel Asurmendi

28 | Gure Txoriak proiektua: Ikaslea ahalduntzeko, eman hegoak / Mikel Garcia Idiakez

31 | Gestazio subrogatua: Haurdunaldi solidarioa? / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

32 | Justo Bolekia Boleká: "Ekuatore Ginean ez dago estatus ofiziala duen hizkuntza autoktonorik" / Miel A. Elustondo

40 | Bidehutsek 10 urte: "Logika asanblearioa musikara eraman dugu, besterik ez" / Lander Arretxea Bereziartua

43 | Trikun trakun eginez / Itxaro Borda

47 | Zinema aretoetan iragarkiak? Ez, eskerrik asko / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produkzioa:** Antza S.A.L.
Harpidetzak: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:
Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

PANORAMA

Turismo masiboaren sprinta

Turismoaren igoera orokorra izan da Aste Santuko oporraldian. Donostia, Bermeoko Gaztelugatxe, Zumaia edota Elizondo turistaz leporaino betetako irudiek kezka eragin dute herritar askorengan. Hizketagai bilakatu dira turismo masiboaren ondorioak. Horietako bat da gentrifikazioa: turisten etorrerak eragindako bizitzaren garestitze orokorraren ondorioz –bereziki etxebizitzen salneurrian– herritarrak periferiako auzo eta herrietara alde egin behar izatea. Horren eragin mingarriak aspalditik ezagutzen dituzte bizitokia behartuta utzi behar izan duten Lapurdiko kostaldeko, Marseillako, Bartzelonako edota Veneziako milaka lagunek. Prozesu antzekoa Bilbon eta Donostian gertatzen hasia dela salatzen duten ahotsak gero eta ugariagoak dira. Irudian Madrilgo Lavapiés auzoan pasa den hilean gentrifikazioaren aurka egindako protesta umoretsua.

Argazkia: Alvaro Minguito · Testua: Axier Lopez

“Ez dut ulertzen komunikabide batzuen trataera eskasa [Gazte Akelarreaz]: gazteek ‘ongi pasa’ eta ‘asko ikasi’ dutela, udalekuak bailiran, eta ez aldarrikapenez beteriko asteburua, gazteen ekintza politikorako gaitasuna infantilizatuz”

Maddi Ane Txoperena Iribarren (*Berria*)

“Itzubaltzetarrok berri txar bategaz esnatu gara: herriko gaztetxea kiskalita aurkitu dugu. Amorrua, pena eta gaztetxearen aldeko borrokan inoiz baino kementsuago segitzeko indarrak eman dizkigu. Ez dugu amore emango”

Gaztetxeko kideak

“Emakumeak maratoiak egiteko ahulegiak ginela uste zen, baina neure buruarengan konfiantza neukan”

Katherine Switzer, 1967an gizonentzako lasterketa batean ofizialki parte hartu zuen lehen emakumea (*New York Times*)

Turismoaren olatua: 20 hotel berri irekitzera doaz Donostian

Axier Lopez / Lukas Barandiaran San Roman
@axierL / @barandiluk

Adegi Gipuzkoako enpresarien elkarteak eskainitako datuen arabera, egun Gipuzkoan dauden 5.200 oheren eskaintza 2019 hasierarako 7.200 izatea da helburua. Tolosan eta Hondarribian hotel bana ari dira eraikitzen, baina hedapen horren eraginik handiena hiriburuak biziko du: Donostian 20 hotel berri eraikitzeko lizentziak banatu dituzte eta 2.000 turista gehiagorentzako lekua eskainiko dute. Adibidez, Portxuetxe inguruan 151 gela dituen hotela aurreikusita dago eta Amaran, Espainiako Poliziaren egoitza zen eraikinean 100 gela inguruko eskaintza izango da. Hotel horietako batzuk eraikitzen ari dira jada.

Hotelen eskaintzari gehitu behar zaizkio azken aldion polemika piztu duten etxebizitza turistikoak –jabeek ez dituztelako legalki aitortzen–. Erabilera Turistikorako Etxebizitzen Euskadiko Elkartearen arabera, Gipuzkoan 1.500 bat etxebizitza daude alokagai, horietatik 1.300 Donostian. 7.000 turistentzako lekua osatzen dute.

Turistifikazioaren adierazleak

Alokairuen prezioa %22 igo zen 2016an Donostian, Idealista atariak urtero egiten duen azterketaren arabera. Iaz, bisitariek 1.894.610 aldiz egin zuten lo Donostian, aurreko urtean baino 146.815 gau gehiago. Donostiaren turistifikazioa azaltzeko baliagarria zaigu Airbnb enpresak –bisitarientzat tarte baterako alokairu irregularrak eskaintzeko plataformak– ematen dituen datuak: Gasteizen 361 plaza, Bilbon 1.484 eta Donostian 4.553 eskaintzen ditu.

“Hunkigarria da niretzat horrenbeste ezezagun ikustea elkarrekin borrokan”

OIER GOMEZ MIELGO, PRESO GAIXOA

Sei hilabeteko bizi-itxaropena eman diote medikuek Gomezi, eta harekiko elkartasun egun jendetsua egin zuten apirilaren 22an. “Hunkigarria izan da niretzat horrenbeste lagun eta ezezagun ikustea elkarrekin borrokan, zinez espero dut berdin segituko dugula, gogo eta gogor borrokatzen euskal preso politiko guztiak aske eduki arte”. Bi egun geroago, Oier Gomezen zigorra eteteko eskaera onartu zuen epaileak. **2017-04-22**

HI ZER HAIZ, UNIONISTA ALA SEZESIONISTA?
NIK EZ DINAT ONARTZEN EUSKALDUNOK HIRU ADMINISTRAZIOTAN SEZESIONATURIK
HERRI BATEK GOBERNU BAT
AUPA UNIONISMOA

Manifestazio eta istiluek ez dute etenik Venezuelako gatazka mediatizatuan

Ane Eslava Serrano
@eslavaane

Chavismoa eta oposizioa protesta egitera irten dira Venezuelako kaleetara eta hiru hildako eta hamarnaka zauritu eta atxilotu izan dira. Oposizioak Nicolas Maduro presidenteak kargua uztea eskatu du eta Gobernuaren aldekoek, aldiz, hura defendatu eta estatu kolpe saiakera salatu dute. Madurok elkarrizketarako deia egin du eta Henrique Caprilesek manifestazioekin jarraitzekoa.

Apirilaren 19an independentziaren aldeko borrokaren hasiera ospatzen dute urtero Venezuelan eta aurten kalera irteteko erabili dute jai eguna chavismoak zein oposizioak. Herrialde osoan egin dituzte martxak eta Caracasen istiluak izan dira oposizioko manifestariak eraikin ofizialen zonaldera iristen saiatu direnean.

Hiru hildako egon dira: 24 urteko emakume bat, 19 urteko gizon bat eta Polizia Nazional Bolivartarreko militar bat. Gertatutakoaren inguruko bertsioak ugariak dira. Oposizioaren esanetan, hildako gazteak oposizioko kideak ziren eta manifestazio bitarteko istiluetan hil dituzte, tiroz. *El Universal* egunkariak, berriz, jakinarazi du hildako emakumearen senideek esan dutela hura ez zegoela manifestazioan. Horrez gain, gizonezko biktimaren anaiak esan du hura ez zela oposiziokoa.

Elkarrizketarako deia eta manifestazio gehiago

Bien bitartean, Nicolás Madurok elkarrizketarako deia luzatu die oposizioaren bozeramaileei eta "indarkeriarekin eta kolpismoarekin amaitzeko" eskatu die. Tareck El Aissami Gobernuko presidenteordeak esan du oposizioko buruek planifikatu eta finantzatu dituztela kaleko istiluak, nazioarteko iritzian eragiteko eta esku-hartze bat justifikatzeko. Henrique Capriles oposizioko buruak, ordea, manifestazio gehiago deitu ditu.

Venezuelako Gobernuaren aldekoen eta aurkakoen arteko gerra mediatikoa gero eta gogorragoa da. Pascual Serrano kazetariak salatu du nazioarteko medioek informazioa manipulatzen dutela, Nicolás Maduroren Gobernua "manifestari baketsuen errepresiogile" bezala erakusteko eta "istiluen goratzea" egiteko.

EKONOMIAREN TALAIAN

Asko dago aldarrikatzeko

Juan Mari Arregi

Egun batzuk barru mundu osoan ospatuko da Maiatzaren Lehena. 131 aldiz egin da honez gero, eta urterik urte sindikatuek kalera irteteko eskatzen dute. 1886an Iparramerikan ugazabek inposatutako lanegun amaigabeen aurrean, zortzi orduak defendatzeagatik hil zituzten langileen oroimenez egin ohi da. Baina ez da gogoratzeko data soil bat, baita aldarrikatzeko ere. Zenbaitek klase borroka ukatu nahi duten garaiotan, bizi-bizirik baitago. Erasoaldi kapitalista gero eta muturrekoagoa da, eta horregatik behar da aldarrikatu, mundu osoan bezala hemen eta orain.

Langabeziak hor segitzen du eskandaluzko zifrekin (%12 inguru), gazte langabetuak %50 dira eta milaka pertsona daude paroan luzaroan; prestazio sozialak gutxiegi dira ordea. Horri gehitu behar zaio beste milaka lagunek jasaten duten lan prekarietatea. Lotsagarria da, bestalde, erosteko ahalmenaren galera, soldatak oso baxuak baitira: Hego Euskal Herriko langileek azken bost urteetan 1.582 milioi euro galdu dituzte. Soldaten araberako diskriminazioa basatia da: emakumeek gizonek baino laurdena eta herena artean gutxiago jasotzen dute, eta gazteek berriz, 45 eta 52 urte artekoen erdia ere ez. Jubilatuek pentsioak praktikan izoztuta dituzte, egunetik egunera pobreagoak dira. Eta bitartean, aberatsak gero eta aberatsago dira, gobernuek kontrolatzen dituzten politika sozio-ekonomiko eta fiskalen onuradun nagusiak izaki.

Egoera aldatzeko bestelako politikak behar dira, eta Euskal Herriaren burujabetza politiko, ekonomiko eta soziala ere behar dugu, herri langilea izan dadin aldaketa sozialari probetxu aterako diona. Hori lortzeko, ordea, ezinbestekoa izango da sindikalgintza abertzalearen ekintza batasuna.

EUSKAL IRRATIAK

Hegaztiak ez sakrifikatzeko mobilizaturik

ZUBEROA ETA NAFARROA BEHEREA. ELB sindikatuaren deiari erantzunez, ehunka herritar mobilizatu ziren apirilaren 21ean Domintxine, Gabadi eta Barkoxeko etxaldeen atarietan, bertaratu ziren poliziei aurre egin eta etxalde txikietako hegaztiak sakrifikatzea eragozteko, Frantziako agintariek nahi duten bezala. 400 lagun bildu ziren Barkoxen eta 200na Gabadin eta Domintxinen, erresistentzia pazifikoa egiteko prest. Polizia handik bidaltzea lortu zuten. Gabadin elkartutakoen aurka oldartu zen Polizia; negar eragileak bota zituzten.

Lehen aldiz, emakumeak Luzaideko jauzien dantzetan

Ane Eslava Serrano
@eslavaane

Luzaiden urtero ospatzen duten Bolant Egunean, lehen aldiz, emakumeek jauzietan hartu dute parte. Galdeketa egin zuten iazko martxoan eta herritarren gehiengo handiak emakumeen parte-hartzearen alde bozkatu zuen.

Aurretik zegoen panorama

Orain arte emakumeek hiru dantzatan baino ez zuten parte hartzen: Martxa, Bolant-dantza eta Lauetan Erdizkan, "neskatoa" paperean. Dantza-jauziak soilik gizonentzat ziren.

Bost jauzitan

Aurten, emakumeek bost jauzitan hartu dute parte: Egi, Marianak, Ostalerrak, Zazpi Jauziak eta Antxoritz. "Hasteko bost horiek dantzatzea erabaki genuen, modu naturalean sartzeko, eta oso ondo atera da", azaldu dute.

%75a alde

Dantza taldean gero eta gizon gutxiago egoteak sortu zuen emakumeek dantza guztietan parte hartzeko premia. Bolanten Batzordeak herritarrei galdetzea erabaki zuen eta baietz bozkatu zuen %75ak.

PLASTIKOA

4,12

eta 12,7 milioi tona plastiko iristen dira urtero munduko ozeanoetara, Greenpeacen esanetan. Kopurua, gainera, gorantz doa urtetik urtera.

50

milioi tona plastiko ekoizten dira urtero Europan (Txinaren ostean, munduko plastiko ekoizle handiena gara), %40 ontziak egiteko.

ERDOGAN, ARE BOTERETSUAGO

Turkian demokrazia parlamentariotik sistema presidentzialistara igarotzeko galdeketan baiezkoak irabazi du, bozen %51,2rekin. Oposizioak iruzurra salatu du eta begiraleek esan dute prozesua ez dela demokratikoa izan.

SARIA ESLOVENIAN ERRAUSTEGIA GELDITU DUENARI

Ingurumenaren defendatzaileak saritzen dituen 'Goldman' garaikurra eman diote Esloveniako Uroš Macerl nekazariari, hango porlan fabriketan zaborrak erretzearen kontra borrokatzeagatik.

MARIJANE ETA XARRITON OMENDU DITUZTE

34. Sarako Idazleen Biltzarrak hil berri Marijane Minaberri eta Piarres Xarriton idazleak omendu ditu aurten. 149 idazleren lanak izan dira Saran, horietako asko berriak.

El Salvador, munduan metalen meatzaritza debekatu duen lehena

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Meatzaritza irentsarazteko, salvadortarrei era guztietako ametsak eskaini zizkieten, industriak bezala garapenerako laguntzak, lanpostuak, administrazioaren diru iturri berriei esker eskola eta ospitale berriak. Baina amesgaiztoak laster erakutsi zuen belarria, uraren kutsadura eta korporazioen bortizkeria tarteko. Azkenean martxoan, herri mugimenduen mobilizazio luzeen ondoren, El Salvador bilakatu da munduan metalen meatzaritza debekatu duen lehenbiziko herrialdea.

Martxoaren 29an El Salvadorreko legebiltzarkide guztiek –abstenitu zen dozena bat ez beste guztiek– beren botoekin berretsi zuten herrialdean metalak erauzteko meatzaritza debekatzen duen lege berria, horrek ingurumena eta gizakien osasuna kaltetzen dituela eta "familien garapenarentzako eta ongizatearentzako mehatxua dakarrela" dioena.

Legeak debekatzen du metalak eskuratzeko prozesu oro, izan bilaketa, erauztea, ustiatzea edo ekoiztea, lurpean bezala egun argitan, horretarako edozein kimiko toxiko erabiltzea bezala. Meatzaritza den arren munduko paraje askotan kezka eta istilu eragile nagusienetakoa, munduan ez da beste herrialderik El Salvadorrek eman duen urratsa egitera ausartu denik.

Erabakiaz Legebiltzarreko lehendakari Guillermo Gallegok esan zion BBC telebista britainiarrari: "Ebazpen historiko, adoretsu eta erabakigarria izan da. Gure herria oso txikia da lurrez eta bertan metal meatzaritza egitea suizidioa litzateke".

2005etik mobilizazio handiak zeuden arren debekuaren bila, garrantzi berezia eduki du mugimenduari Eliza Katolikoak bere babesa eman izanak. Omar Téllezek kontatu duenez *Así es como El Salvador logró prohibir la minería metálica en todo el país* kronikan, hierarkia katolikoaren urratsean erabakigarria gertatu zen 2015ean Frantzisko aita santuak argitaratu zuen *Laudato si* entziklika, zeinak kristauen konpromisoa aldarrikatzen baitu klimaren aldaketaren eta honek batik bat munduko txiroenen artean dakartzan kalamitateen aurrean. "Entziklikan Frantzisko oso gogor mintzatu da meatze-konpainiez eta ura giza eskubide oinarrizkoa dela predikatzen du". Elizaren jarrerak asko erraztu du jarduera horren kontrako kontsentsua El Salvadorreko gizartean, eta ondorioz legebiltzarreko bozketa.

Lurraren Lagunen elkarteko liderretakoa den Ricardo Navarro salvadortarrak *The Ecologist*en azaldu du lege berriaren garrantzi historikoa: "Hamarkada luzez iraun duen gatazka honetako garaipenak erakusten du jendeak gaina hartu diezaiekeela korporazioen interesei eta irabazi. El Salbadorreko herria gailendu zaie meatzaritzako erraldoiei". Ez galanki borrokatu gabe.

Lurraldez oso txikia izanik biztanlez gainezka dagoen El Salvadorren –310 biztanle kilometro koadroko, kasik Gipuzkoak adina– meatzaritzak iragan beltza dauka. Urte luzez araurik gabe garatua, agintariek atzerriko konpainiei bidea erraztu zieten beti: metal erauzte eta ustiatzeak erreka, aintzira eta gainerako ur guztiak kutsatuak zituen, jendeak bezala soroak eta kabalak.

Agintariek are gehiago babesten zituzten meatze-konpainiak 2004an Erdialdeko Amerikako herrialdeek eta AEBek CAFTA nazioarteko ituna sinatu zutenetik, praktikan El Salvadorreko landa eremuen jabetza utziz Holcim, Monsanto eta Pacific Rim konpainien eskuetan. Lekuko elitearen kolaborazioarekin, multinazionalok ekin zioten El Salvadorreko natur baliabideak esportatzeari. Atzerriko inbertsioak hazi ziren 1992ko 30 milioi dolarretatik 2008ko 5.900 milioietaraino.

Kutsadurak nozitzera kondenatutako herritarren artean are gehiago handitu zen haserrea 2012an zabaldu zenean gobernua 22 eskari ari zela aztertzen urre meatzeak baimentzeko, El Salvadorreko lur eremu guztiaren %4,3 desjabetzea ekarriko zuen horrek. Jendeak ondo zekien berehala zetorkiela lur lapurreta, multinazionalek ez galdeketa, ez negoziazio eta ez kalte-ordain txukunik gabe egina gainera.

Eta hedatu zen erresistentzia: protestak, auzitegietara jotzea, elkarretaratzeak, lur okupazioak... Ibilaldi nazional bat ere antolatu zuten presidentearen jauregiraino. Jendeak lehenbiziko aldiz gogor egin zien aurre multinazionalei.

Odol markak urretan

Disidentzia beren biziarekin pagatu zuten meatzaritzaren kontrako hiru militantek. Eta askok Pacific Rim konpainiaren esku beltza salatu zuten.

2002tik zebilen El Salvadorren Pacific Rim kanadarra. 2008an San Salvador hiriburutik 65 kilometrora *El Dorado* meategia ustiatzeko baimena eskaturik, gobernuak ukatu egin zion herri mugimenduen eta Elizaren presioz. Pacific Rimek auzitara jo zuen kalte ordainetan

'El Universo' hedabidearen argazkian, El Salvadorreko legebiltzarkideak metalen meatzaritza debekatzen duen legea eztabaidatzen martxoaren 29an, aurrean dauzkatela "Meatzaritza ez. Bizitza bai" dioten banderolak. Gizarte mugimenduek urte luzez borrokatu behar izan dute, herritarrez gainezka bizi den Erdialdeko Amerikako herrialde txikian uraren pozoitzea gelditu, lurren lapurreta eragotzi eta jendeen osasuna bermatzen duen legea onar zedin. Historian mugarria ezartzea lortu dute.

700 milioi dolar eskatuz eta giroa oso gaiztuta zegoen *El Dorado* dagoen Cabañas probintzian.

2009ko ekainaren 30ean Marcelo Riveroren gorputza azaldu zen San Isidro de Cabañaseko iturri baten ondoan, hil aurretik torturatua izanaren marka beldurgarriz. 37 urteekin, Pacific Rimen kontrako kanpainetan liderretako bat zen. Abenduaren 20an Ramiro Rivera hil zuten M-16 fusil militar baten tiroz Sensuntepeque herrian; aurretik beste eraso bat jasana, poliziak babestuta zeukan... ustez. Sei egun geroago, herri berean, fusil beraren suz hil zuten Dora Alicia Sorto, 32 urte, zortzi hilabeteko haurdun, errekara zihoala gobada egitera. Konpainiak ukatu zuen zerikusirik zuenik, agintariek ez zuten hiltzailerik atzeman, herrietan zabaldu ziren familien arteko istiluen zurrumurruak...

El lado oscuro del oro. Impactos de la minería metálica en El Salvador liburuan Florian Erzinger, Luis Gonzalez eta Angel Ibarrak kontatua dute garai hartan "urrearen sukar" berria bizi zela Erdialdeko Amerikan, urrearen prezioak ontzako 1.000 dolarreko muga gainditua. 2005-2009an agintzen zuen Antonio Saca eskuindarra hasieran multinazionalei eskuak libre uztearen aldekoa zen, baina atzera egin zuen hauteskundeak gainean zituela eta. 2009an ARENA alderdiak galdu zuen bozketa, eta meategirik ez baimentzeko promesa zekarren FLMN Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronte ezkertiarrak irabazi.

Gerrillari-ohiek patata beroa heredatu zuten. 25 meatze-proiektu zeuzkaten aurkeztuta korporazioek, argudiatuz 12 milioi ontza urre –336 tona– eta 78 milioi zilar –2.185 tona– ekoiztuko zituztela. Hori bai, 22 milioi litro ur xahutuz eta 950 tona zianuro toxiko erabiliz.

Gizarte mugimenduek zabaldu zuten *Biziak urrea baino gehiago balio du* leloa. MOVIAC Klimaren Aldaketak eta Korporazioek Kaltetutako Jendeen Mugimendua eta No a La Minería bezalakoak indartu ziren eta gatazka internazionalizatzea lortu zuten. Pacific Rim boteretsuak txirotasunean murgildutako El Salvadorri kalte-ordainak ezarri nahi izateak mugiarazi zituen berez ingurumen aferekin oso sentiberak ez diren hainbat politikari nazionalista.

Goldman Ingurumen saria irabazia den Ricardo Navarrok esan duenez, "El Salvadorren garaitu arren, mundu justu eta jasangarriago baten aldeko borroka ez da bukatu. Baina itxaropenez egin dezakegu aurrera, ikasi dugulako jende normalak elkarrekin lana eginez alda dezakeela mundua". ■

Ibai Atutxa, literatur ikertzailea

«Desira ez da bakarrik nor maitatu, desira da zelako bizitza eta herria nahi dugun»

Sarri aditu dugu: denbora pasa behar dela, zenbait egoerari lasai begiratzeko. Distantziak ere lagun dezake: zenbait margo ez dira ondo ikusten, hurbilegi ipiniz gero. Urruntasun eta arnas bila joan zen Ibai Atutxa literatur ikertzailea Euskal Herritik kanpora: handik hona begira jarraitu du hala ere, pantailaren bitartez. Bilbora bueltatu berritan hitz egin dugu harekin: erresistentziaz, gentrifikazioaz eta desiraz.

Danele Sarriugarte Mochales
@daneleSM
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Orain dela gutxi itzuli zara Euskal Herrira. Zer moduz?

Lur hartzea apur bat bortitza izan da, beti izaten den moduan. Azken batean, bost urte egin ditut New Yorken, eta han neuzkan bizitza egiteko behar nituen gauza guztiak; konplikatua izan da hori dena mugitzea.

Santutxura etorri zara.

New Yorken nengoela hasi nintzen pisua bilatzen eta beste Bilbo bat ezagutu nuen, zeren ni galdakoztarra naiz, eta alde egin nuenean behintzat, 22 urterekin, Galdakaon bizi zen norbaitentzat Bilbo zen asteburuko parranda, ez bizitzeko toki bat. Interneten begiratu eta hortxe hasi nintzen auzoak apur bat gehiago ezagutzen (ez naiz erdigunean bizitzekoa), eta halaxe etorri ginen hona.

Karmelan gaude orain, Karmelo ikastola zaharraren eraikinean Santutxuko bizilagunek martxan jarritako proiektuaren gune askean. Etorri aurretik ez zenuen horren berririk?

Azken hamar urteetan, eta batez ere azken bost urteotan, pantaila baten bitartez bizi izan dut Euskal Herria, eta beraz, ezagutzen nituen Bilbon gertatzen ziren gauza asko, baina ezin nituen mapan kokatu. Nik sarean ezagutu nuen garai hartan Karmelo deitzen zena eta sorpresa izan zen bat-batean etxera iritsi eta ikustea orain Karmela den hau nire etxe azpian zegoela.

Zer-nolako lotura daukazu Karmelarekin?

New Yorken, eskalatzen hasi nintzen rokodromoan, eta ikusi nuen hemen eskalada talde bat sortzen ari zirela, pila bat talde eta proiektu sortzen ari dira orain, eta orduan idatzi nien, eta galdetu ea *roko*aren taldea irekia zen eta ea asanbladak irekiak ziren. Irekiak ziren biak, eta ordutik hona asanbladetara etorri naiz asteartetan eta izugarrizko esperientzia potentea izan da. Gainera, espazio honek urte eta piko egin du martxan, eta beraz, eskaintzen ditu aukerak denetatik egiteko.

Ibai Atutxa

1984, Galdakao

Euskal Filologia ikasketak egin zituen Deustuko unibertsitatean, eta gero, literatura konparatuari eta filosofia garaikideari buruzkoak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Bi liburu argitaratu ditu, biak ere Utriusque Vasconiae argitaletxearen eskutik: *Tatxatuaren azpiko nazioaz* (2010) eta *Kanonaren gaineko nazioaz* (2012). Hainbat literatura eta pentsamendu aldizkarirekin kolaboratu du, besteak beste *452ºf* eta *Lapiko kritikoa*rekin. Azken urteotan, New Yorkeko Columbia unibertsitatean aritu da, ikertzaile eta irakasle.

Kanpotik zenekarren irudipena aldatu al da?

Hona heltzerakoan ulertu dut mundu guztiak ezagutzen duela mundu guztia, nik izan ezik. Ez da oztopo bat, hala ere. Etorri aurretik uste nuenarekin konparatuta, ikusi dut dena dela nahasiagoa eta inperfektuagoa. Azken batean, internet bidez edo prentsan jasotzen denak beti hartzen du halako ordena bat, eta ordena horrek beti hartzen du armonia bat, eta guztiak ematen du bikaina, eta etortzen zarenean errealitatea den modukoa da eta ezer ez da inoiz hain perfektua, baina uste dut gauzak gertatzen ari direla.

Irudipena daukat, krisiaren eta su-etenaren ondoren, paradigma batzuk zalantzan jarri zirela, eta beste diskurtso batzuk hasi zirela indarra hartzen, batez ere feminismoarekin lotutakoak, zorionez. Kanpotik iruditzen zitzaidan mugimendu sozialak ari zirela gero eta garrantzi handiagoa hartzen, eta orain iruditzen zait uste nuena baino potentzialitate handiagoa daukala horrek guztiak.

Zure lanera etorri nahi nuke. Nola bilakatzen da irakurlea literatur ikertzaile?

Zuk esan bezala, irakurlea nintzelako iritsi nintzen euskal filologiara. Mundu guztia ez da irakurle gisa iristen. Deustun ikasi nuen eta bere garaian bazeuden bi aukera, bata zen hizkuntzalaritzan berezitzea eta bestea literaturan. Gutxi ginen bigarren adar horretatik joan ginenak. Ikasketek beste modu batera irakurtzeko tresnak eman zizkidaten, baina egia da euskal filologia egin eta gero Euskal Herritik joan nintzela, behar nuelako, ez dakit oso ondo zergatik, ez dakit orain eta ez nekien orduan, baina argi neukan alde egin beharra neukala, eta garai bat kanpoan ibili eta gero erabaki nuen irakurle kritiko izateko jarrera horretara hurbildu nahi nuela berriz, eta halaxe iritsi nintzen Ingalaterratik Bartzelonara.

Lehenengo Ingalaterran egon zinen, beraz. Ikasbide handia izan al zen?

Ingalaterrak eta Londresek arnasa eman zidaten, distantzia, urrutitik begiratu nion nire buruari, hemen neukan lekuari, honek nigan zeukan eraginari. Bestalde, irakurketak ireki zitzaizkidan, guztiz. Gogoratzen dut Londresen arratsaldez egiten nuela lan, egunka-





riak banatzen, eta goizak libre nituela, eta *British Library*-an igarotzen nituela, justu etxe ondoan neukan-eta.

Eta Bartzelonan?

Bertan ezagutu nituen oraindik ere oinarri bezala erabiltzen ditudan teoria kritiko guztiak edo gehienak, forma sistematikoan eta gorpuztuan ezagutu ere. Hor ezagutu nuen literaturara hurbiltzeko beste modu bat. Bartzelonara iritsi nintzenean ipuin laburrak ikertu nahi nituen, hots, literaturaren hurbilketa nahiko ortodoxoa neukan buruan, eta Bartzelona bonba bat izan zen.

Zer alde dago hurbilketa ortodoxoaren eta Bartzelonan ezagutu zenuenaren artean?

Batetik, ez dira bi hurbilketa guztiz bereiziak; segida batean daude. Hala ere, funtsezko aldea litzateke, hasiera batean testua hartzen nuela erlazionatzeko objektu bezala, eta, gero, testua ez baizik gorputza zela gunea, hau da, norbere gorputza nola erlazionatzen den testuarekin, norbere gorputza nola erlazionatzen den inguruarekin eta testuarekin, beste gorputzekin…

Beraz, ez da hainbeste liburuari buruzko analisi bat egitea liburua hartuta gauza isolatu bat bezala, baizik eta areago bizi zaren gizarteari buruzko analisi bat egitea gizarte horrek ekoizten dituen liburuen eta kultur produkzioaren bitartez?

Hori da, eta horri bigarren buelta bat ematea, hau da, gizarteak testuak produzitzen ditu eta testuek gizartea produzitzen dute, eta beraz, ea zer gertatzen den mugimendu horietan. Baina kontua ez da zer datorren nondik, baizik eta zer menderakuntza-erlazio sortzen diren etengabeko ekoizpen horretan, zer aukera dagoen menderakuntza horiei aurre egiteko, eta nola aurkitu daitezkeen erresistentzia-bideak hamaika testu, irudi eta bideotan.

Nolatan joan zinen gero New Yorkera?

Aukeratu gabe aukeratu nuen hiria, zehaztu gabeko premia baten ondorioz. Tesia idazten ari nintzen eta horretan ari zarenean kanpora joan zaitezke. Printzipioz, hiru hilabeteko egonaldiak dira, baina nik esan nuen urtebetez joan nahi nuela. Esan zidaten "zuk pagatu beharko duzu asegurua", esan nien baietz, eta kito.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Uste dut oraindik digeritzen ari naizela hiri hori. Han jabetu nintzen neure zuritasunaz inoiz baino argiago, han ikusi ditut garbien kultur aniztasuna esaten zaion horrek dituen arrakalak, han eduki ditut, baita ere, milioi bat aukera. New Yorken 25 urte dituzu beti.

Ikerle-bisitari aritu eta gero hango unibertsitatean sartzeko aukera izan nuen, eta esan behar dut hemendik sortzen direla halako ilusio batzuk, AEBetako unibertsitateak sekulakoak direla, eta tira, unibertsitate batzuk badira, baina ez unibertsitate-sistema bere horretan.

Baina zu Columbian egon zinen eta Columbia bada halako super-unibertsitate bat, ezta?

Bai. Irakurtzeko gaitasunaren aldetik, zeharo aldatu nau. Oso komunitate potentea sortzen da halako toki batean, eta pentsatzea da beren zeregin bakarra. Noski, horrek baditu bere alde ilunak. Columbia burbuila bat da, hiri erabat zapaltzaile batean dago.

Horren adibiderik emango al zenidake?

Munduko finantza-hiriburuetako bat da Manhattan. Biztanleen %1az hitz egiten dugunean ari gara hor bizi den jendeaz. Gero, Manhattanen barrena zoaz ibiltzen eta ikusten duzu etxerik ez daukan jendea lo egiten banku baten aterpean: hortxe dauzkazu %100aren bi muturrak.

Zer-nolako aldea zegoen zu bizi zinen tokiaren eta Manhattanen artean?

Brooklynen bizi nintzen ni, Columbiatik ordu eta laurdenera, metroz. Brooklynen bertan hiru milioi lagun bizi dira. Ni espezie oso konkretu bat nintzen hirian: gizona, zuria, unibertsitarioa, irakasteagatik ematen duten beka moduko bat jasotzen zuena. Ez da izugarrizko diru-sarrera, baina bada nahikoa gentrifikazioaren lehenengo agentea izateko. Horregatik bizi naiz pozik Santutxun, halako gatazkarik ez delako gertatu auzo honetan, oraindik ez behintzat.

Azalduko zenidake zer-nolakoa den gentrifikazio-prozesu hori?

New Yorken, gerraurreko etxe batean bizi nintzen, ordaindu nezakeen toki batean. Halako etxeek alokairu mota finko bat daukate: alokairuaren urteko igoera ez du merkatuak erabakitzen, esan ohi den bezala, baizik eta hiriak edo estatuak. Beraz, oso gutxi igotzen da eta jendea geratu daiteke luzaroan etxebizitza horietan. Nire blokeko biztanle gehienek 30 urte inguru zeramaten han, edadetuak ziren, eta Karibe ingurukoak. Gehienak emakumeak eta gehienak beltzak.

Hiru urtez bizi izan nintzen han, eta hasieran eta amaieran blokera sartzen eta irteten ziren gorputzak asko aldatu ziren. Zergatik? Ba justu auzoko zona bat oso *cool* bilakatu zelako, eta orduan jendea hasi zen ni bizi nintzen inguru horretara etortzen, eta han bizi zen jendea botatzen. Bizilagun bat joaten denean, alokairuaren prezioa pixka bat igotzen da, legeak baimendu adina, eta beste norbait sartzen da. Nire espeziea ez da halako etxe batean bizi 30 urtez, askok urtebete baino ez dute egiten. Orduan, pixkana-pixkana, prezioa badoa gorantz, eta kopuru jakin batera iristean, apartamentua merkatura askatzen da. Eta akabo.

Eta horren aurrean zer egin zitekeen?

Hori ere izan zen New York niretzat: nola kudeatu nik eta nire gorputzak nik erabaki gabe eragiten zituen menderakuntzak, nola aldatu nik erabaki gabe inposatzen nituen gauza horiek.

Orain, desirak aztertzen ari zara.

Desira ez da bakarrik nor maitatu eta norekin jo larrua, desira da zer bizitza nahi dugun, estatu bat nahi ote dugun…

Hor badago arauaren ideia bat, eta ez da binarioa, baizik eta lerro bat. Gure gorputzak lerro horretan zehar daude kokatuta, eta gu arauan sartu ala ez, arauaren arabera desira dezakegu.

Euskal Herri independentea desio dudala esaten dudanean zer esan nahi dut, zer beste desira jartzen ditut martxan? Ezin da desiratu herri bat airean, eta desira batzuk kudeatu egin behar ditugu, izan behar dugu desira batzuen oso jabe.

Adibidez?

Bi desira hegemoniko ikusten ditut; bata, desira neoliberala, hau da, indibiduo buruaski ekintzailearen desira: bakarrik nago eta besteen kontra eraikitzen dut herria; bestea desira etnikoagoa da, Silvia Federiciren hipotesiari tiraka: Euskal Herriaren desira etnizistak gorputzak ekoizteko faktoria gisa ulertzen du emakumeen gorputza.

Loturarik ba al dago bien artean?

Azkenean, beti ekoizten da gizonezko kategoria bat. Esaten dugunean euskaldunak gatozela ez dakit nondik eta ez dakit noiztik, belaunaldiz belaunaldi iritsi garela hona, Europako zaharrenak garela, modu idilikoan islatzen dugu emakumeen figura, menderakuntza konkretu bat da, hor desiratzen den herriak emakumearen gorputzaren menderakuntza sustatzen du. Desira neoliberalean desiratzen den herriak, berriz, esplotazioa sustatzen du: nik badaukat, eta nik zerbait edukitzeko zuk ez duzu edukiko.

Jakina, nik neuk desio dut bizitza on eta duin bat, baina horrek zer esan nahi du?

Ezin al dugu bizitza on eta duin bat lortu, botere-menderakuntzak modu justuagoan kudeatuta?

Uste dut posible dela. Etorkizunari buruzko galderak arriskutsuak izan ohi dira. Nik beti esaten dut: egin, saiatu. Karmela bezalako espazio batek aukera hori eskaintzen du. Gauzak joango dira batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago, baina egin ezazu, saiatu zaitez, eta aterako da zerbait, eta ez bada bikain ateratzen, bada konpondu. Ez dago besterik. ■

Asmo orokor bat

"Hasieran ez neukan argi Euskal Herrira itzuliko ote nintzen ala ez, baina garbi neukan, itzultzekotan, izan nahi nuela martxan zegoen Euskal Herri baten parte".

Asmo zehatz bat

"Oso airean dago dena, baina, Karmelan, sortu nahi nuke testuak konpartitzeko gune seguru bat, idazten duzuna idazten duzula, izan fikzioa zein saiakera, nahi nuke antolatu testuak taldean aztertzeko eta sortzeko toki bat, ikuspegi ahal bada kritiko batetik lantzeko horiek denak".

Aldartea

Estitxu Garai Artetxe
EHU-KO IRAKASLEA
@egarai

Emozioak egoera jakin eta zehatzari lotutako unean uneko erantzun afektiboak dira. Aldartea, berriz, egoera animiko iraunkorra da. Hortxe bien arteko aldea: bata neguko lorea da, besteak urte osoan dirau. Gertaera sozial eta politikoak ere izan daitezke emozio iturri. Asko oharkabean pasatzen diren arren, badira barrenak ziztatzen dizkiguten zenbait; pozarren, hunkituta, lur jota, atsekabetuta edo beldurrez uzten gaituztenak. Alabaina, gehienetan, sortu dituen gertaera atzean utzi ahala, emoziook urtuz doaz, desagertu arte. Osterantzean, denboraren joanean emozio bertsuak behin eta berriro sentituz gero, emozio horiek aldarte bihurtu daitezke, iraunkortu, alegia.

Azken asteotan izan ditugu Euskal Herrian kirioak dantzan jarri dizkiguten jazoerak. Batetik, askotariko sentipenak eragin zituen apirilaren 8ko ETAren armagabetzeak. Sumatzen zen Baionan jendea unearen garrantziaren jakitun zela. Ez atzera eta ez aurrera katramilatuta zirudien korapiloari, lan, irudimen eta ausardiaz erantzun zioten Bakearen Artisauek, baita gerora engaiatu ziren herritar guztiek ere. Ezina, ekinez eta konpromisoz egina. Nago, neurri handi batean, Iparraldean urtetan landutako aldarteak egin zuela posible armagabetzea horrela gauzatzea. Euskal Elkargoa sortu berritan, konfiantza eta elkarlanerako giroan, gizarte zibila izan zen ekimenaren gidari, erakundeetako ordezkarien babesarekin. Alabaina, artisauek eurek adierazi zutenez, Baionakoa mugarri izan arren, beste urrats bat baino ez luke izan behar, herri gisa aurrera egiten jarraitzeko beta ekarri beharko lukeen urratsa. Hortaz, ikusteko dago uneko emoziotik harago izango duen bilakaera.

Herri askotan galdeketak antolatzen dihardu Gure Esku Dagok. Albistegi eta solasaldietan parte-hartzearen ehunekoan jartzen ari dira arreta, baina ikuspegi horretan oinarrizko akatsa dago, galdeketak ez baitira bere horretan helburu, bitarteko baizik. Galdeketaren egunari barik, hurrengo egunari erreparatu beharko genioke, herri horietan galdeketa antolatu izanak utzi duen ondorenari

Baionako biharamunean bukatu zen 20. Korrika. Zein eta inoizko Korrika arrakastatsuena, non eta aldaketaren Iruñean eta Nafarroan. Euskaltzaleok hunkituta barne-barnean sentitu genuen eguna izan zen, eguzki eta giro alaiz jantzita. Korrikan inoiz baino jende gehiagok parte hartu izana ez da hutsaren hurrengoa, ezta ere Nafarroako eta Iparraldeko erakundeetan euskararen aldeko jarrera duten agintariak egotea. Hala ere, Mertxe Mugika AEK-ko koordinatzaileak adierazi duen bezala, Korrika jai hutsean gera ez dadin gogoeta egin behar da orain, hamaika egunez gure herriak gurutzatu dituen indarra praktikan euskararen hauspo bilaka dadin.

Bestalde, Etxarri Aranatzen eta Arrankudiagan hasitako bidetik, herri askotan galdeketak antolatzen dihardu Gure Esku Dagok. Albistegi eta solasaldietan parte-hartzearen ehunekoan jartzen ari dira arreta, baina ikuspegi horretan oinarrizko akatsa dago, galdeketak ez baitira bere horretan helburu, bitarteko baizik. Galdeketaren egunari barik, hurrengo egunari erreparatu beharko genioke, herri horietan galdeketa antolatu izanak utzi duen ondorenari. Alegia, ikustea ea prozesua bera aldarte sorrarazle izan ote den, balio izan ote duten aktibaziorako. Sugarra bizirik mantendu ezean alferrikakoa izango baita egindako lana.

Gure herriaren harilkatzean azken boladan gertatuko ekitaldiak dira jarritako adibideok. Kontua da, horiek guztiak gertaera isolatutzat hartzen baditugu, uneko beroaldi eta emozioan geratuko direla. Eta burumakur bolada luzea eman ostean, guk ere badugu emozio puntualetatik harago indartuko gaituen aldarte kolektiboaren premia. Izan ere, aldarteak ekintzara darama, eta egiturazko jardun iraunkorrek mugitzen dituzte errotak. Herri honek bere onena jada eman duela pentsatzetik, onena etortzear dagoela sinestera pasa behar dugu, eta horretan gogo betean eta gogotik aritu. Herri aldarte gabe, nekez izango baikara herri. ■

Ziklo honen amaiera bueltan dago

Endika Alabort Amundarain
EKONOMIALARIA
@autogestioa

Badaramagu pare bat urte krisitik ateratzen; datu makroekonomikoek hori erakusten dute, batez ere Barne Produktu Gordina (BPG) erreferentziatzat aukeratzen badugu. Horren adibide bat dira Euskal Ekonomisten Elkargoak sei hilero argitaratzen duen Ekonometroan lortutako emaitzak: 2014ko abendutik hona egin diren ia inkesta guztietan, galdetutako ekonomisten %40k egoera hobetuko dela dio; beste %45-50ek, berdin mantenduko dela. Enplegu arloan, aldiz, egoera ez da kolore berekoa. Hala ere, *Errezesio handia* deituriko krisi hau amaitzear dago?

Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak aztertuz, hausnarketak ez du batere poztasunik sorrarazten. Har dezagun erreferentziatzat 2008. urtea, krisia hasi zenekoa. Orain dela bederatzi urteko BPG maila berreskuratu dugu. Pertsona enplegatuen kopurura ez gara heldu, %90ean gaude, ordainketak eta lan orduak ere %90ean geratu dira. Hortaz, gaur egungo hazkundearen datuak tentuz hartzeko modukoak dira.

Gainera, adituek diote ekonomi hazkunde honek epemuga duela. Roberto Ruiz-Scholtes, UBS Espainia konpainiako Estrategia Zuzendariak esan du 2019an egoera ekonomiko oker batera bueltatuko dela Espainia, eta hedapenez, gure lurraldea ere. Europan hazkundea moteltzen ari da eta badirudi hazkundearen zeinu positiboari eutsiko diotela Europar Batasuneko kideek; hala ere, *Brexit*-aren ondorio ekonomiko eta Batasuneko ekonomiaren dinamikek krisia berpizteko indar nahikoa izan dezakete 2019an.

Brexit-aren ondorio ekonomiko eta Batasuneko ekonomiaren dinamikek krisia berpizteko indar nahikoa izan dezakete 2019an

Orduan, 2014-2016 artean zergatik eman da berreskurapen ekonomikoa? Daniel Albarracínen hitzetan, krisiaren errebote-efektua eman da, enpresa eta lanpostu ugari desagertu direlako: enpresa kopuru murritzago batek merkatuaren zati handiago bat hartzen du. Aldi berean, energiaren prezioa (petrolioa, batez ere) jaitsi eta gastu publikoaren murrizketa eten da, ekonomian eragin positibo bat izan du. Esportazioak ere handitu dira, ezaguna denez, bertoko industriaren parte garrantzitsu bat Europa Erdialdeko herrialdeen industria osagarria baita. Herrialde horien egoera hobera doanean, geure industriarenak antzeko zeinua eraman ohi du.

Europar Banku Zentralak egoera lagundu du, interes tasak murriztean, finantziazioa erraztuz, merkatuz. Enpresa transnazional eta haien filialek diru merke horri onura atera diote, euren jarduera ekonomikoa sustatuz. Hau da gure esportazioen indarra azaltzen duen elementu garrantzitsu bat, enpresa multinazionalen finantzaketa merkeak erraztu duena.

Laburbilduz, ekonomiak hamarkada bat galdu du eta horrek azaltzen du hazkunde ekonomikoa. Baina, aldi berean, begi-bistan denez, berreskurapen honek iraupen motza dauka. ■

MARCOS
okindegia
Benetako
aitzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TIPI-TAPA
BAGOAZ!

BIZITZA
JASANGARRI
BATERAKO
ERALDAKETA
www.tipitapabagoaz.info

Bi abestiren alegia

Jose Ignazio Ansorena
TXISTULARIA

Historia bihurria du *Haurtxo polita* sehaska abestiak. Doinua antzinatik ezaguna da, I. Gerra Handian, esaterako, Frantziako soldaduek martxa militar gisan kantatzen zuten, erritmo markatu eta biziaz.

Gabriel Olaizolak, Donostian *Saski Naski* antolamendua prestatzen ari zirenean, erritmoa aldatu zion eta, Txomin Sagarzazu hondarribiarrak proposatuta, honen anaia Klaudioren hitzak atxiki zizkion. Gabrielen anaia Josek harmonizatu eta estreinako aldiz Radio San Sebastián, EAJ 8 zelakoan eskaini zen, *Los martes euskéricos* programan. Pepita Enbil bakarreko ahotsean eta zortzi gizonezkoren abesbatzak, *otxoteak* alegia, lagunduta.

Abestiak berehala lortu zuen arrakasta. *Saski Naski*-n 1928tik aurrera erabili zuten eta Eresoinkak, gure gerra bitartean, programetan eskaintzeaz gainera, diskoan ere grabatu zuen, Pepita Enbil bera bakarrekoa zelarik.

* * *

Martutene eleberrian Ramon Saizarbitoriak hainbat aldiz aipatzen duen beste abesti batek antzeko bidea izan du: *Isil-isilik.*

Isil-isilik
aurkitzen dira
ibar soilak eta basua.
Ez da mendian
ezer entzuten
ez bada hontzaren oihua.

Isilik dago
tantai gainean,
lehengo txori berritsua,
lumatxo biguin
harro artean
gorderik bere burua.

Garai batean bertsolariek usu erabiltzen zuten honen doinua, Europa osoan ezaguna hau ere. *Xenpelar*-ek Santa Barbararen martiritzari eskainitako bertsoak kantatzeko zabaldu zen XIX. eta XX. mendeetan. Txomin Sagarzazu kaskagorri jatorrak berriro anaiaren goiko bertsoak egokitu zizkion. Jendartean ederki zabaldu zen. Gerra ondoko urteetan Jose Maria Zapirain, Gasteizko apaizgaitegiko musika irakasleak eskatu zion Donostiako San Bizenten apaiz zegoen Ramon Intzagarairi doinu horretan Eguberri bertsoak paratzea eta eliza bereko organo jotzaileari, Luis Urteagari, abesbatzarako harmonizazioa egitea. Horrela sortu zen *Gaueko izar* bilantzikoa, apaizgaiek Euskal Herriko bazter guztietara, *Jaiotza* eta *Olentzero*en bitartez, zabaldu zutena. Apaiztegiaren inprimategiak bilduma batean argitaratu izanak ere lagundu egin zuen. Egun horixe da ezagunena.

* * *

Bi abestion alegiaren irakaspenak:
1) Antzinatik oso europarrak garela euskaldunak doinu kontuetan. 2) Doinuek gehiago irauten dutela hitzek baino. 3) Doinua baino garrantzitsuagoa dela erritmoa eta intentzioa.
4) Euskaldunok gerra martxa sehaska abesti gozo, eta martirio bertsoen doinua Gabon kanta pozgarri bilakatu genituela. 5) Agian bide beretik jarrai genezakeela. ■

Ongi etorri emigranteak, geurera

Itziar Bardaji Goikoetxea
IRAKASLEA

Urte eta erdi hondartza batean hildako haur siriar baten argazkiak sare sozialak astindu zituenetik. Txuriegia zen umetxoa europar begientzat, urtetan Mediterraneoan itotako milaka ume eta heldu beltzak baino hunkigarriagoa.

Ordutik, etorkinak eta etorri ez direnak esplotatuz nagusitasun ekonomikoa mantentzen saiatzen den Europa zaharrak are bortitzago itxi ditu ateak, kontzertinak zorrotzago, hesiak altuago, luzeago.

Mezu xenofoboak eraso terroristen albisteekin nahasten dira. Kanpotarrak arriskutsuagoak, matxistagoak, lapurragoak direla barneratzen dugu. Tantaz tanta zulatu dezake urak harria.

Irmo erantzuten diogu honi. Herritar guztiok sistema eta elite boteretsu berdinak ditugu zapaltzaile eta diskurtso arrazistak herri boterea herrika bereizi nahi du: koloreka, hizkuntzaka atomizatu, kontrajarri eta ahuldu. Beraz, elkar gaitezen.

Diskurtsoaz harago, ordea, gure herri eta hirietako errealitatearen isla litzatekeen ezker antolatu mestizoa eraikitzeke dugu. Oraingoz, abizen bitxidun auzokideekin elkarlanean aritzea ez dugu lortu, ez gara haiengana iristen. Noizko?

Hortxe hausnarketa bat, asteburuan eginen diren Ongi Etorri Gernika 2017 jardunaldietara begira. ■

Zad-etik: independentzia komunala

Bretainian, Nantes eta Rennes artean, Notre-Dame-des-Landes herritik ez urrun, aspaldi du, Estatua aireportu bat egin nahian dabilela. Kontra izan, bertako jendea.

Historia luze baten ondotik, 2009an, bizilagunek ZAD (*Zone d'Aménagement Différé*) okupatzera joateko deia egin zuten. Urte hauetan, milaka lagun heldu dira zonara. Ehunka batzuk bertan gelditu dira bizitzen. Horrela sortu da Zad: *Zone à defendre*.

Zadera ez da poliziarik agertzen; bizilagunek ez dute zergarik ordaintzen; ezein urbanismo-planetatik aparte sortzen dira etxeak; lurrak zertan erabiltzen diren, zenbat gari eta zenbat esne produzitzen den, sortzen eta hiltzen diren abereen berri, Estatuak ez daki. Ezin ikuskatuzko, ezin gobernatuzko lurraldea bilakatu zaio Zad Estatuari. Hausturaren sakonagatik, kasu bakana Mendebaldean.

Baserritar gutxi batzuekin batean, inondikako jendea bizi da Zaden. Horietako asko *zadistak* dira: multinazionalei eta estatuari gogor egiten dioten militanteak, mundu mailako borroka batean txertatzen dutenak beren ekinaldia, eta, hala ere, edo horregatik, bertako bizitzan oso direnak inplikatzen. Kondizio zailetan bizi, manifetan beti aurrean izan... Bertakoen begirunea eta oniritzia berenganatu dituzte.

Hainbesterekin zadistek, burujabetzaren mekanismoak abiarazi dituzte: ez garapen-espertorik, ez poliziarik edo tribunalik ere behar izateko... eta, noski: elikatzeko, komunikatzeko, defenditzeko... Hitz batean, bizitzeko behar dituzten baliabideak sorrarazi dituzte.

Ostatu-etxea, okindegiak, nekazaritza-pabiloiak, sutegiak, edotariko tailerrak, erizaindegia, dantza eta musikarako salak, haurren etxea, liburutegia... Dozenaka lan-komun sortu dira Zaden.

Pablo Sastre
IDAZLEA

Udazken beroa iragarrita dago aurtengoa: seguru asko, berriz tokiak husten saiatuko da Estatua. Zad sendo dago; borroka baina, ez dago irabazia. Guztiarekin, irabazia balute bezala ari dira bizilagunak. Aireporturik ez den futuro bat gogoan, autonomiaren azpiegiturak indartzen dituzte: batzar-etxe bat, birziklategi bat, bainu publikoak, "nazioarteko etxola" eta abar, egitekotan dira. Bertan *bizi* eta bertan *ari* izatearekin hartzen diete aurre Estatuaren ofentsiba berriei

Hona hemen nola sortzen diren Zadeko *komunak*: bide konpontzeko dela, patatak egiteko dela, edo beste, ideia baten inguruan osatzen da talde bat, errealizatu egiten du. Hasierako motibazioa kamusten bada, bertan behera gelditzen da proiektua. Talde bakoitza bere maneran antolatzen da eta, nahi izatera, ezagutzera ematen du bere ekintza. Beti ari dira taldeak sortzen eta hiltzen.

Europako antzinako komun-herrietatik bereiz, Zad, lehengoari begira dago baina, ez da tradizio luze batetik heldu; sustrai askotatik dute bertan komuna fabrikatzen.

2012ko udazkenean, milaka polizia sartu zen Zadera: baserriak bota, tokiak husten saiatu ziren. Ez zuten lortu; erantzuna berealdikoa izan zen. Konfiantza hartu zuten elkarrekin bertakoek eta zadistek. Hainbat baserritarrek eurentzat hartu zituzten zadisten ekintza-moldeak: etxaldeak eta lurrak okupatu, legez kanpo eraikinak altxatu zituzten. Ehunka hektarea lantzen dituzte elkarren ondoan edo elkarrekin baserritarrek eta zadistek harrezkero.

Udazken beroa iragarrita dago aurtengoa: seguru asko, berriz tokiak husten saiatuko da Estatua. Zad sendo dago; borroka baina, ez dago irabazia. Guztiarekin, irabazia balute bezala ari dira bizilagunak. Aireporturik ez den futuro bat gogoan, autonomiaren azpiegiturak indartzen dituzte: batzar-etxe bat, birziklategi bat, bainu publikoak, "nazioarteko etxola" eta abar, egitekotan dira. Bertan *bizi* eta bertan *ari* izatearekin hartzen diete aurre Estatuaren ofentsiba berriei.

Hara nola, labur kontatuta, Estatutik, hor nonbait *independentea* izatera heldu den Europako lurralde txiki hau.

Datozen asteetan zadista batzuk gure artean ibiliko dira. ■

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA

Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

Makila tradizionala	Makila tradizionala	Makila tradizionala	Makila tradizionala	Ohorezko Makila	Ohorezko Makila
Gaztainondo/Letoi	Mizpirondo/Letoi	Mizpirondo/Alpaka	Mizpirondo/Zilar fina	Mizpirondo/Alpaka	Mizpirondo/Zilar fina

ARGIA

ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus
Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

Ongi Etorri Gernika 2017

Zer egin genuen galdetzen digutenean, zer erantzun izateko

"Zerbait egin behar da. Kalera atera behar dugu. Gobernuak igarri egin behar du gizartearen haserrea". Maitane Azurmendi Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko taldeko kideak argi dauka. Apirilaren 29an, Gernikaren bonbardaketaren 80. urteurren ekitaldien harira, milaka lagun ikusi nahi lituzke Gernikan. Muxikan dute hitzordua, handik Gernikara martxa isila egiteko, errefuxiatuei babesa erakutsi eta orain 80 urte gertatu zena, eta gaur gaurkoz beste hainbat herrialdetan gertatzen ari dena, gogoratzeko.

Marijo Deogracias Horrillo
@desplazatua

"Nire amamak bonbardaketan pasatakoa kontatzen zidanean haren begiradan ikusten nuen beldur bera sumatzen da albistegietan ikusten dituzun pertsonen begietan. Historia errepikatzen ari da, eta zerbait egin beharra daukagu". Maitane Uriarte Atxikallende Gernikako bonbardaketa bizi izan zutenen lobatako bat da. "1937ko apirilaren 26ko triskantza haren testigantzak lehen eskutik jaso dituen azken belaunaldia garela esan genezake", azpimarratu zuen Uriartek, Gernikaren bonbardaketan 80. urteurrena gogoratzeko aurkezpen-ekitaldian. Lobak proiektuan ari da bera, beste hainbat kultur sortzaile gazterekin.

Lobak proiektua ere aritu da apirilaren 29an eta 30ean Gernikan egingo den aldarrikapen-egitarau zabala osatzen. Gerraren kontrako eta errefuxiatuen aldeko nazioarteko topaketa egingo da Gernika-Lumon apirileko azkeneko asteburuan.

Ongi etorri Errefuxiatuak plataformak hartu du bere gain asteburu horretan milaka eta milaka pertsona elkartu nahi dituen egitasmoaren gidaritza. "Gernikan gertatu zena atzera ez dadin errepikatu", dio Uriartek. Hala adierazi zuen aurkezpenean ere: "Mezu argi batekin gatoz: gure aitona-amonak ere izan ziren errefuxiatuak eta orain, guri dagokigu gerratik ihesi dabiltzan pertsonei laguntzea. Gure herria, behin bidegabekeriak erraustutakoa, izan dadila gaurkoan ongietorririk beroenaren habia".

Ongietorri sinboliko hori apirilaren 29an egingo dute: errefuxiatuei babesa agertzeko martxa erraldoia. Horretarako Muxikan elkartzeko deia egin dute eta hara bildutako guzti-guztiek Gernika-Lumoko herrira martxa bateratu eta isila egingo dute.

Maitane Azurmendik izan zuen martxa egiteko burutazioa. Ongi etorri Errefuxiatuak plataformako kidea da bera, eta Lobak proiektuan ere badabil. 2016ko udan Tesalonika (Grezia) hirian

'Ongi etorri Gernika 2017' egitasmoaren aurkezpenean Europak errefuxiatuekiko duen jokabidea salatu zuten elkarretaratze batekin.
ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA

egon zen *No Border* salaketa-ekitaldian. Beste hainbat lagunekin batera, errefuxiatuei elkartasuna adierazteko eta gobernuei presio politikoa egiteko joan zen hara. Esan digunez, "jendea Gernikara batzeko asmoa da gobernuei mezu bat helaraztea: errefuxiatuak lagundu behar ditugu! Ez dut nahi 20 urte barru belaunaldi oso bat galdetzen aritzea ea zer egin genuen".

Azurmendik ez dauka ahazteko errefuxiatuen kanpalekuetan ikusi zituen pertsonen aurpegietan ageri zen "desesperazioa". "Itxaron-ilarak egitea besterik ez daukate han: gosaltzeko, bazkaltzeko, jantziren bat eskuratzeko, seme-alabak garbitzeko, manta bat lortzeko... Denbora geratu izan balitz moduan bizi dira, ezer egitekorik gabe". Hura ikusita, etxera itzultzean zerbait egin behar zuela besterik ez zuen buruan eta horrela sortu zen *Ongi Etorri Gernika, 2017* egitasmoa.

"80. urteurrena izanik, hemen ere alde egin behar izan zuten neskato-mutikoak egon zirela gogorarazi nahi dugu. Euskal Herria harrera-leku izatea nahi dugu", azpimarratu digu. "Azken batean gerratik ihesi datoz eta ezin dizkiegu ateak itxi. Ez dugu beldurrik izan behar, ez baitut imajinatu ere egin nahi gu geu atera beharko bagina, eta laguntzeko inor ez dagoela ohartuko bagina, zer egingo genukeen".

Herri ekimena

Azurmendik azaldu digunez, oso erraza izan da herriko taldeak egitasmoan inplikatzea eta egitarau zabala osatzea. Izan ere, apiril osoan hainbat eta hainbat ekitaldi egin dira Gernikan 80. urteurrena gogoan: bakearen inguruko mahai-inguruak, memoria historikoaren inguruko hitzaldiak, antzezlanak, film emanaldiak eta nola ez bonbardaketa egunean bertan, apirilaren 26an, sirena-hotsa eta *4 minutu* ekimena, *Gernika Garretan* herri-antzerkia eta kandelen manifestazioa.

Aurten gainera, *Gernika Garretan* antzezlana berritu egin dute. Onintza Enbeitaren laguntzarekin gidoia eguneratu nahi izan dute, errefuxiatuen dramari lekua egin asmoz. "Orain dela 80 urte Santurtzitik 4.000 ume atera ziren Habana itsasontzian, gerratik ihesi. 80 urte geroago, salbamendu-jakak jantziarazten dizkiete milaka eta milaka umeri gerratik txalupetan ihes egin dezaten. Haiek bazekiten nora zihoazen; gaur egun ez dakite inora helduko diren ere", diosku Azurmendik. Horregatik, egoera horretan ihes egin beharra daukaten pertsonak, haurrak, gogoratzeko keinua ere bada antzelana.

Gernika 2037

"Francoren bilobari gutuna" antzezlanaren harira *Bertsolari* aldizkarian zioen Igor Elortza bertsolari eta antzezlanaren gidoilarietako batek, "kontatu barik kontatzen diren istorioek sortzen dituzten zauriak dira sendatu behar direnak". Kezka horrekin dabiltza *Ongi Etorri Gernika 2017* egitasmoa antolatzen dabiltzan guztiak.

Lobak taldeko Uriartek esaterako dio, gerra osteko beldurra bizi izan zuela beti euren amama zenak. "Bakarrik kontatzen zigun guk geuk galdetuz gero, eta beti ere kontu handiz. Frankismoa amaituta ere berari beldur hori geratu zitzaion barruan". Are gehiago, bonbardaketaren ondorengoen loba honek dio asko igarri dutela euren etxean urteetako hutsunea. "Herriko historia paralizatu egiten da, beldurragatik. Gure amama bizi zela ere, beti esan izan digu "kontuz ibiltzeko", hori izan du beti berak barruan: beldur horrekin hazi eta bizi izan da beti, dena amaituta egon arren".

» **MAITANE AZURMENDI (ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK BIZKAIA):** "Gerratik ihesi datoz eta ezin dizkiegu ateak itxi. Ez dugu beldurrik izan behar, ez baitut imajinatu ere egin nahi gu geu atera beharko bagina, eta laguntzeko inor ez dagoela ohartuko bagina, zer egingo genukeen"

» **MAITANE URIARTE (LOBAK PROIEKTUA):** "Herriko historia paralizatu egiten da beldurragatik. Gure amamak beti esaten zigun 'kontuz ibiltzeko', dena amaituta egon arren"

Ildo horretan, Hannot Mintengia gernikarrak 2016an zuzendu zuen *Markak* dokumentalean dio Bernardo Atxagak, "gogoratzeak, memoriak, lan asko eskatzen du; nahitaezkoa da euskarri batzuk egotea, zerbait, zeinu batzuk behar dira gogoratzeko, ze normalena ez da gogoratzea, normalena da ahaztea".

Eta ez ahazteko, Lobak egitasmoan euren aurrekoen lekukotza hartu dute. Mintegiak zioen bezala, "memoria, orainean ekitera obligatzen zaituen zerbait bezala ulertu behar baita".

Horixe da, hain justu, Lobak proiektua. 2012an, kulturaren eta artearen sorkuntza-eremu gisa hasi zen. Bonbardaketatik bizirik atera ziren haien lobek osatu zuten, "utzi diguten lekukotzarekin eta ondarearekin bakoitzak bere esparruan egin dezakeen ekarpena egin dezan", azaldu du Maitane Uriartek.

Markak dokumentalean parte hartu zuten haietako askok, euren testigantzak emanez eta sentimenduak adieraziz. Haren ondotik sortu da apirilaren

1937ko otsailean Zumaiatik kanporatutako emakumeak euren haurrekin.
BALEIKE

HERRITAR XUMEEN ERBESTEAZ

Josu Chueca

Bertolt Brechtek *Langile baten galderak* poesian, aditzera ekarri zuen herri xumearen bazterketa. Hitz horiek ongi doazkie 1936 eta 1939ko kinkan erbestera joan ziren milaka eta milaka euskaldunei. Izan

ere, goi mailako politikari zein intelektualen atzerriratzea historiara eraman eta nonahi azaldu den bitartean, beste herritarren antzeko patua zokoratu egin izan da. Egun, harriduraz eta zerbait ezezaguna izanen balitz bezala egin dituzte omenaldiak euren herritik indarrez kanporatuak izan ziren emakumeen alde. Ba zen garaia! Memoria historikoan ahatetxo itsusiaren parean gelditzen ari den erbesteratzea puska batean bederen berreskuratzeko; egiari zor diogulako eta gaur Europan gertatzen ari diren antzeko tragedien aurre-oihartzun zuzena delako.

1936ko gerra zibilaren ondorioz izandako erbesteratzea, Espainiako Estatuko herrialdeen historian handiena izateaz gain, klase eta esparru guztietako herritarrak zanpatu zituen. Eta ez soilik *Retirada* ezagunean –1939ko otsailaz geroztik Gironako mugetatik landa izandako hartan–, baita gerraren hasieran ere. Jakina denez, Espainiako militar errebeldeek egindako estatu kolpearekin, lehen momentutik eman zion ihesari jendeak, multzo txikiagotan bazen ere. Frankistek aurrera jo zuten heinean, ihesaldi horiek hauspotu zituzten.

Lehen erbesteratze masiboa Irungoa izan zen. Milizianoekin batera milaka herritarrek zeharkatu zuten Bidasoa, haurrak eta helduak, Iparraldean babesa bilatzeko asmoz. Egun batzuetako ihesa izanen zelakoan, askorentzat gerra bitarteko bilakatu zen iraun bitartean, beste batzuentzat itzulerarik gabeko bidaia.

Gerra frontea egonkortu arren, barne deserriek jarraitu zuten. Atzeguardian kokatuta zeuden herrietatik ehundaka andrazko kanporatu zituzten euren haurrekin, susmagarriak zirelakoan. Hilabete batzuk geroago Bizkaiaren aurkako erasoaldiak sortutako bigarren erbesteratze masiboaren aurrekaria izan zen hura. Zarautz, Zumaiatik, Getariatik, Azkoititik... ehundaka lagunek segizio tamalgarriak egin zituzten errepideetan barna. Baina latzena iristear zegoen: faxistek inpunitate osoz egindako bonbardaketek argi eta garbi utzi zuten inor ez zela salbu. Erabateko gerra zen. Hala, haurren erbesteratze handiak antolatzen hasi ziren Bizkaiko portuetatik. Ondorioa zein izan zen badakigu: 20.000 haur baino gehiago sortetxea lagata gerra amaitu arte laketu ziren Britainia Handian, Frantzian eta Belgikan, eta 1960ko hamarkada arte Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean.

Haurren deserriratze horrek erakutsi zuen zer etorriko zen ipar frontea oso osorik frankisten esku geratzen zenean: Kantauriko kostaldeko portuetatik soldaduak, buruzagi politikoak eta herritarrak itsasoratu ziren, Nantesen, Saint Nazairen, La Pallicen edo Pauillacen lur hartzeko. Haietako asko Frantziako kolonietan geratu ziren, beste zenbaiti hango familiek eman zien ostatu, eta askok Kataluniara jo zuten, behin-behineko aterpe bila.

1939ko urtarrilean frankistek Katalunia jarri zuten jomugatzat. Orduan, behin betiko erbesteratzea iritsi zitzaien 1936-1937tik etxetik kanpo zeuden euskal errefuxiatu horiei guztiei. Frankistak Bartzelonara hurbildu zirenean hasi zen ihesaldi handiena. *Retirada* hitzarekin historiara igaro den atzera-egite hark errefuxiatu kopuru ikaragarria sortu zuen. *L'Illustration* frantziar astekari eskuindarrak horrela deskribatu zuen: "Espainiarrek Frantzia aldean hasitako exodoa, hartu duen muntarengatik, irudiezina da. Herri oso bat badoa: aberatsak, pobreak, burgesak, merkatariak, nekazariak, beharginak, armadakoak, zama animaliekin, gurdiekin, autoekin, gerra tresnekin nahastuta". Bat datoz lekukoak eta historiagileak esatean 500.000 inguru izan zitezkeela. Era berean, Frantziako Gobernuak errefuxiatu horiekiko izandako jarrera salatzeko unean ere zalantzarik ez dago: agintariek azken unera arte mugak itxi zituzten, eta onartu zutenean ihesean zetorren jendetza Frantzian hartzea, "harrera" berezi samarra eman zieten.

Mugak zeharkatutakoan, jendarme frantziarrek milizianoak desarmatu eta goitik behera miatu ostean, gertuen zeuden kontzentrazio guneetara eta Argeles, Saint Cyprien eta Le Barcaresko kontzentrazio hondartzetara eraman zituzten, txarrantzez eta militarrez inguratutako eremuetara. Miliziano ez zirenak, berriz, barnealdeko aterpeetara bidali zituzten. Nolanahi ere, agintari frantziarrek egundoko indarra jarri zuten jendea lehenbailehen Espainia frankistara itzul zedin. Askok onartu zuten hori egitea. Halaber, Frantzian gelditu zirenek Estatu frantziarraren desbideratze faxista jasan behar izan zuten II. Mundu Gerra medio, lehenik Daladier eta Reynaudekin, eta ondoren Petainena Vichyko erregimenarenarekin.

Mundu gerra amaitu zenean ez zen homologaziorik izan Espainia eta Europako garaile demokratikoen artean. Erbestea betiko izanen zen, ez bakarrik goi mailako agintari edo arduradun politikoentzat, baita Bertolt Brechtek gogoratzen zituen herritar xume horientzat ere.

20an Astran aurkeztu duten *Gernika 2037, memoria eta espazio publikoa* egitasmoa: Gernikako ondare historiko-fisikoa berreskuratzen saiatzeko proiektua.

"Turista askok galdetzen dute ea ez ote dagoen herrian gertaeraren arrastorik; baina kontua da bonben osteko Gernika erabat suntsituta geratu zela eta berreraiki egin behar izan zela", diosku Uriartek. "Egiaz ez dakigu ezer Gernikari buruz, bonbardaketa osteko Gernikari buruz. *Markak* dokumentalaren grabazioan zutabe bat deskubritu zuten gerra zibileko armen tiro-markak dituena. Guk hori ez dugu jakin eta hori, gura ala ez, gure ondare historikoaren parte da".

Horregatik "asmoa da identifikatzea bonbardaketatik geratu diren leku-markak; gure ondarea berreskuratzeko plan bat abiaraztea, bai gerra zibilekoa, aurrekoa zein ondorengoa". Uriartek azaldu bezala, epe luzerako proiektua da, "bonbardaketaren mendeurrenerako erronka bat".

Muxika-Gernika, martxa isila

Zapatu-domekan egingo dira "Gernikan gertatutakoaren memoria bizirik eusteko" eta "gaur egun milioika pertsona ihes egitera behartu dituzten beste "Gernika" horietan gertatzen dena geldiarazteko" aldarrikapenak. Bizkaiko Ongi etorri Errefuxiatuak plataformak antolatu du Gernika batzordea, Arrano Kultur Elkartea, Gernika Garretan, Sare-Gernika, Lobak, Gernika Zine-kluba, Gite-Ipes, Nkap eta Gernika Gogoratuz taldeek lagunduta. Zapatuan egingo dira errefuxiatuei babesa emateko ibilaldiak, Euskal Herriko hainbat lekutatik oinez zein bizikletan Gernikara iritsiko dira denak batera, manifestazio isilean.

ARGAZKI PRESS / JAIZKI FONTANEDA

Gernikako Astra fabrikan bonbardaketen aurka erabilitako sirena berritu eta martxan jarri zuten iaz: Yahia Koddo eta Ruba Hassan siriarrek aktibatu zuten.

Domekan, berriz, gaikako tailerrak eta esperientzia-mahaiak antolatu dira, "jendeak ezagutu ditzan han eta hemen egiten ari diren bestelako elkartasun ekimenak –dio Azurmendik–, eta euren artean ere elkarlana sustatzeko. Azken batean, bilatzen duguna da jendea inplika dadila, eta elkartasun sarea ahalik eta gehien sendotzea". ■

❱ Artikulu hau eta beste asko itzultzen ditugu ingelesera, Euskal Herriko berriak Euskal Herritik zabal ditzagun: **argia.eus/english**



FRANTZIAK BEREALDIKO "IRAULTZA" BEHAR DU

En marche!-ko Emmanuel Macron eta Fronte Nazionaleko (FN) Marine Le Pen lehiatuko dira berriz ere maiatzaren 7an. Inkesten arabera Macron liberalak (bozen %23,49 eskuratu du) aise gaindituko du Le Pen eskuin muturrekoa (%22,09) bigarren itzulian: bozen %60 eta %40 inguru jasoko lituzkete hurrenez hurren. Presidentzialetako parte-hartzea ohikoa izan da: %77,3. Inkestek iragarritako kronika baten isla dira lehen itzuliko emaitzak.

Mikel Asurmendi
@masurmendi

Frantziako gobernagarritasuna gero eta zailagoa da gaur gero. Azken hirurogei urteetan Hexagonoko politika kudeatu duten bi alderdi nagusien egungo ordezkariek –Les Républicains (LR) eta Parti Socialiste (PS)– ez dute "beren" presidentea Eliseon izango. Eskuindarren porrota handia izanda ere, François Fillonek bozen %19,75 erdietsi du; haatik, PSko Benoît Hamon hautagaiak jaso du (%6,2) jipoi gaitzena. François Hollande presidenteak (PS) berari sostengua eman izan arren, PSk ezin izan du bere hondoratzea ekidin. *La France insoumise*-ren ordezkari Jean-Luc Mélenchonek (%19,45) gogor eragin du PSren gainbeheratze horretan, alabaina ezkerrak ez du Eliseoko aginte makila eskuratuko, ezta hurrengo gobernuan izateko aukerarik ukanen honezkero.

Bozen erabilgarritasuna baieztatu da

Mendebaldeko sistema demokratiko kapitalistan –AEBetako Trump fenomenoa gogoan– hauteskundeek hartu duten jitea kontuan hartuta, Frantziako presidentzialetan inkestek iragarritako emaitzek ez dute hautesleen boto asmoa desitxuratu. Egiari zor, inkesten datuak eta bozketaren emaitzak oso hurbil geratu dira. Zalantzarik gabe, botoen erabilgarritasuna –*vote utile* delakoa– ez da alferrikakoa izan. Boz erabilgarrien jasotzaile nagusia Emmanuel Macron izan da, bistan denez. Halaber, kritikak kritika, eta kanpainan kalbarioa pasa duen Fillonek boz "askotxo" jaso du: bozen %20. Mélenchonen ehunekoa ez da horren apala, izan ere, ia-ia Filonen pare atera da. Hautesleen bozak aski neurtuak eta pentsatuak izan dira. Eskuin muturreko bigarren hautagai Nicolas Dupont-Aignanek (bozen %4,87) ia bost puntu erdietsi du. Kasuon, bozen erabilgarritasuna ez da bete, Le Peni hainbat boz "hartu" diola pentsa daiteke. Erabilgarritasunaren paradigma PSko hautagai Hamonengan islatu da. Eskuin muturreko Dupont-Aignanen hein bertsuan geratu da, ozta-ozta gainditu du bozen %6a. Gainerako beste bostek, iragarritako emaitzak jaso dituzte: Jean Lassalle, %1,25; Nathalie Arthaud, %0,67; Philippe Poutou, %1,12; François Asselineau, %0,92; Jacques Cheminade, %0,18.

Denak Le Penen aurka, bigarrenean

Marine Le Penek 7,5 milioi boz eskuratu du, inoizko kopururik handiena. Nicolas Dupont-Aignan-ek milioi inguru. Frantziako eskuin muturra gorantz doa. Dupont-Aignanek ez du argitu orainokoan Le Penen aldeko boz eskatuko ote duen bigarren itzulian. Mélenchonek ere ez du Macronen alde eginen duenetz adierazi. Biek ala biek, euren jarraitzaileen esku utzi dute erabakia. Gainerako alderdi handien ordezkari guztiek beren aburua eman dute jada: Macron da euren hautagaia. Batzuek, ez daudela haren alde erran dute, Le Penen aurka baizik, Frantziaren duintasuna salbatu ahal izateko aukera bakarra Macron presidentea izatea omen da. Itxura guztien arabera, Emmanuel Macron jalgiko da garaile maiatzaren 7an, alabaina, egungo *establishment*-en sostengua ukan badu ere –Macron Frantzia Europan bermatzeko aukera sendoena da botere finantzarien arabera–, Frantziako alderdi historiko eta sendoenen ordezkariak ez daude lasai Frantziaren etorkizunari begira. Atzoko hauteskundeen ondoren, Frantzia lau bloke politikotan zatitua da. Gobernagarritasuna bipartidismoan bermatu izan da orain arte. Macron presidente izan daiteke, baina uneon ez dauka ez diputatu ez senatari bakar bat ere Frantziako Legebiltzarrean. Le Penen FNk ez du ia ordezkaritzarik goi-mailako parlamentu eta instantzietan. Uneon, ageri denez, Frantzia zatituta dago. Macron patriota liberalaren politikari men egiten diotenak alde batean eta frantziar nazionalismoaren aldekoak bestean. Hauteskunde legegileak –*legislatives* delakoak– ekainean eginen dira. Jende asko dago, ez ote den alderdi klasikoen aroa pasa. Fronte Nazionalari "*barrage* edo harresia" jartzeko Macron sostengatuz hartzen duten arriskuaz jabetzen dira hala ere. PS eta LRko ordezkari gorenek Macron bozkatzera deitu dute bigarren itzulian, baina funtsean, haientzat bi aukera txarren artean, "ez horren txarra"-ren alde egin dute. Irudiz, V. Errepublikaren aroa amaitu da. Frantziak berealdiko "iraultza" behar du. Batetik, estatuaren osaketan dituen hamaika arazo konpontzeko, eta bestetik, Europan izan duen lekua eta jokatu duen rola berreskuratuko baditu, mendez mende izan duen kohesio politikoa birmoldatu beharko du. ■

GURE TXORIAK PROIEKTUA

IKASLEA AHALDUNTZEKO, EMAN HEGOAK

Denok ez dugulako erritmo eta baldintza berdinetan ikasten, gela arruntetan zailtasunak dituzten ikasleek bestelako dinamika batean aurrera egiteko aukera dute Curriculum-Aniztasuneko gelan. Dinamika horren adibide arrakastatsua da Gure Txoriak proiektua, gaitasun ugari lantzeko eta motibazioa, jakin-mina eta autoestimua handitzeko aproposa.

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Gaur beraiek dira protagonistak: Irungo El Pilar kristau-eskolako Curriculum-Aniztasuneko gelan ari diren 16-17 urteko hamabost ikasleak. Apur bat urduri, trasteak hartu eta 9-10 urteko ikasleen gelara joan dira. Gaiaren aurkezpena egin eta galdera bota dute segituan: "Zenbat txori espezie ezagutzen dituzue?". Esku asko ikusi ditugu altxatuta: usoa, arranoa, kakatua, enara... "Ahatea txoria al da?", jakin nahi du haurretako batek. Nerabeek eurek egindako bideoa jarri dute ondoren: hegaztientzat eraiki dituzten jantokiak ageri dira bertan, ikastetxeko lorategian nola jarri dituzten eta txoriak nola gerturatu diren horietara alpiste bila. Kaskabeltza, txolarrea, txantxangorria... harrapatu ditu Go-Pro kamerak. Inguruko espezieen ezaugarriak ere azaldu dizkiete haurrei, irudiz lagunduta. "Baina sorbeltzak ez badu inoiz lur hartzen, nola jartzen ditu arrautzak?" jakin nahi du 9 urteko neskak. Nerabeek ordenagailuz prestatu duten jolasean lehiatu dira haurrak, bikoteka: hegaztiei buruzko galdera-erantzun jokoa da, eta ikasle helduenak izan dituzte laguntzaile. Azkenik, lorategira jaisteko unea iritsi da. Aranzadi Zientzia Elkarteak sarea jarri du goizean goiz eta txori asko harrapatu dituzte, hamaika denera (ikasleek egindako jantokiek badute zerikusirik, jakina, txoriak erakarri baitituzte). Hegaztiak pisatu, neurtu eta hanketan eraztuna jartzeaz gain, ikasleen galderak argitu dituzte Aranzadikoek. Harritu ere egin dira elkartekoak, nerabeak txoria ikusi eta berehala zehatz identifikatu duenean. Izan ere, gaian kasik aditu bilakatu dira dagoeneko.

Bukaeran, proposamen eta erronka berri batekin gerturatu zaio ikasle horietako bat Iñaki Sanz biologo, proiektuaren bultzatzaile eta El Pilarreko irakasleari. "Gauza handia da mutiko hau irakaslearengana etortzea, eta ez irakaslea harengana joan behar izatea –aitortu digu Sanzek–. Azken finean, interesa eta jakin-mina sortzea da inportanteena, interes horretatik abiatuta ikasitakoa ez dutelako ahaztuko eta jakin-min hori delako motorra, gainerako guztirako". Kontzeptu akademikoetatik harago doa aurkezpen egun honetan lortutakoa: jendaurrean hitz egiteak eskatu dien ahalegina, ikasle gazteagoekin harremana gestionatzeko modua, ardura, konfiantza, erronka eta arrakasta sentsazioa... "Bizipen eta sentimendu asko dira; kasu gehienetan, aurretik oso ohikoak izan ez dituzten sentimenduak".

Gai direla konturatzea abiapuntu

Ikasketetan zailtasun handiak dituzten gazteei DBHko titulua ateratzeko eskaintzen zaien baliabidea da Curriculum-Aniztasuneko taldea, bi ikasturte irauten dituena. Normalean, oztopoa ez da gaitasun falta, lanerako gogo edo ohiturarik ez dutela baizik, edo galduta ikusten dutela euren burua, atzerritik etorri eta hizkuntzarekin ez direla moldatzen oraindik, edo bestelako zamak dakartzatela eskolara, heldutasun puntu bat falta dutela... Beste modu batera lan eginez eta ikastetxean beste pare bat urtez aritzeko aukera eskainiz, irabazitako denbora horrek mesede egiten diela azaldu digute Naroa Martinez eta Iñaki Olazabal talde horretako irakasleek, Ana Ollo ikastetxeko zuzendariak eta Iñaki Sanzek.

"Orain arte, iristen ez direla sentitu duten ikasleak dira, ebaluazio eredu jakin baten barruan nota txarrak pilatzen eta ikasturteak arrastaka gainditzen, frustratzen joan direnak. Baina dinamika hori apurtu eta arbelari begira sei orduz eserita egoteari uzten diote, proiektu, tailer eta eskulanei ekiten diete, oinarrizko helburuak beste era batera lantzen dituzte (ez hain lotuta curriculum arruntera) eta emaitza hobeak

16-17 urteko ikasleak eta 9-10 urtekoak, Aranzadi Zientzia Elkarteak harrapaturiko eta Pablok berriz aske utzitako hegaztiari so.

ikusten hasten dira, gai direla konturatzen. Norbere buruari balioa emateak estres maila asko jaisten du eta heldutasunean, arduran, autonomian irabazten dute", dio Sanzek. Oreka asko zaintzen dutela azpimarratu du Olazabalek: "Ez dugu maila beheregi jartzen, berehala konturatzen direlako eta gainera ahalegina eskatuko dieten erronkei heltzea nahi dugulako. Talde arruntarekin nahastuta ere egiten dituzte ordu batzuk, besteen pareko direla barneratu dezaten, ez isolatu eta berezi". Talde txikia izatea eta bi irakasle baino ez aritzea abantaila dela diote, elkar ezagutza, gertutasuna eta konfiantza errazten dituelako, harreman pertsonalizatuagoa, eta funtsezkoa da hori: momentuak erres-

» **Iñaki Sanz, irakaslea:** "Iristen ez direla sentitu duten ikasleak dira, nota txarrak pilatzen joan direnak. Baina dinamika hori apurtu eta emaitza hobeak ikusten hasten dira, eta norbere buruari balioa emateak estres maila asko jaisten du"

» **Martin S. Gregorio, Eneko De La Puente, ikasleak:** "Aurkezpenean gustura ikusi ditugu haurrak eta bikain atera da dena. Azpimarragarriena, bat egin dugula eta denok elkar hartuta atera dugula aurrera proiektua"

» Altxorra da hirigunean halako lorategia izatea eskolak, ikustea ezerezetik bat-batean nola hegaztiz betetzen den, liburuetara jo behar izan gabe etxetik hain gertu duten aniztasunari erraparatzea, aberastasun hori bizi eta barneratzea

Aurkezpen egunean, ikasle txikiagoen aurrean hitz egin dute nerabeek eta hegaztiei buruzko jolasarekin lagundu diete (irudian). Ardura, konfiantza, erronka, arrakasta... moduko sentimenduak bizitu dituzte, "kasu gehienetan, aurretik oso ohikoak izan ez dituzten sentimenduak", zehaztu du Iñaki Sanz irakasleak.

petatzea, arazoren bat baldin badute entzutea, haiekin hitz egiteko denbora hartzea...

Emaitza garbia da: hamar urteotan El Pilarreko Curriculum-Aniztasuneko taldean ikasi duten gazte guztietatik aparteko bi kasu baino ez dira izan titulua ateratzea lortu ez dutenak.

Jolas gisa sortu zena, egitasmo egonkor bilakatua

Jorratzen dituzten proiektuen adibide interesgarria da natura eta hezkuntza lotzen dituen Gure Txoriak. Ekimena duela sei urte jaio zen, ikastetxeko lorategi-zelai zabala aprobetxatzeko asmoz. Habia-kutxak jarri zituzten eta hegaztiak hasi ziren hurbiltzen; txoriak identifikatzeari ekin zioten, grabatuko zituztela ere erabaki zuten ikasleek... eta joko gisa sortu zena egitasmo egonkor bilakatu da. Unitate didaktikoa dute garatuta, baina urtero sartzen dituzte berrikuntzak, ikasleen proposamenei tiraka: aurten esaterako, alpistea automatikoki –eta ez eskuz– berritzen duten jantokiak egin dituzte, eta plastikozkoak ez, material naturalekin eraiki dituzte. Lorategia haurrekin zeharkatzeko ibilbide bat diseinatzea edota inguruko hegaztiak antzemateko prismatikoekin irteerak antolatzea dira ekintzetako beste bi. Hegaztiekin zerikusia duten puzzle eta jolasak ere egin dituzte eta irrikaz daude, ikasle gazteenak jolastera noiz etorriko. "Egiten dutenak zentzua eta erabilgarritasuna izango duela ikusten dutenean, segituan heltzen diote erronkari, txikienak buruan". Ekintzen bidez, adar ugari lantzen ditu proiektuak: biologia, teknologia, informatika, hizkuntzak, ahozko eta idatzizko komunikazioa... eta arestian aipatu moduan, eduki akademikoak ez diren ikaspenak.

60.000 biztanletik gorako Irun urbanoan, irakasleek nabarmendu dute benetako altxorra dela hirigunean dagoen El Pilar ikastetxeak horrelako lorategia eta gune berdea izatea, ikustea ezerezetik bat-batean nola hegaztiz betetzen den, liburuetara jo behar izan gabe etxetik hain gertu duten aniztasunari erraparatzea ikasleek, aberastasun hori bizi eta barneratu ahal izatea. Urteotan, irakasleek eurek ezusteko handiak eraman dituzte; lorategian 18 hegazti espezie aurkitu dituzte eta ez zuten halakorik espero, hain inguru urbanoan.

Ikasleei ere berdina gertatu zaie: "Hemen inguruan, usoa, txolarrea eta beste espezieren bat baino ez genuela aurkituko uste genuen, eta askoz gehiago izan dira azkenean", kontatu digute Martin San Gregoriok eta Eneko De La Puentek. Ohiko klaseetatik aldentzen den ekimena dela aipatu dute, interakzio gehiago duena, dinamikoagoa... eta aurkezpen egunarekin pozarren daudela: "Haurrak gustura ikusi ditugu eta bikain atera da dena". Egitasmotik zer azpimarratuko luketen galdetu diegu: "Gure arteko laguntasuna, bat egin dugula eta denok elkar hartuta atera dugula aurrera proiektua". Eta indarrak batzen direnean, gauza handiak lor daitezke. ■

ARGIA
943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak
Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia.
Jarri publizitatea hemen

GESTAZIO SUBROGATUA
HAURDUNALDI SOLIDARIOA?

"Merkatuak gure uteroak alokairuan uzteko eskaintza ez dugu emakumeok sortu. Pertsona aberatsen eskariak sortzen du emakume txiroen eskaintzarako beharra". Auziari ikuspuntu feministatik heldu dion EHUko Zuzenbide Fakultateko irakasle Arantza Camposen hitzak dira.

FORMATO7.COM

Hego Euskal Herrian 100 familia inguruk hautatu du gestazio subrogatuaren bidea 2016an.

Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Gestazio subrogatuak kontraesanak sortzen ditu jendartean. Emakumeen gorputzaren askatasuna edo erabilera, legala edo ilegala, negozioa, elkartasuna... Arantza Campos irakasleak ikuspuntu feministatik hitz egin digu, "emakumeen eta euren eskubideen defentsan".

"Ekintza honen arrazoi nagusia negozioa da, oso emakume gutxik edo inork ez baitu egiten tartean dirurik ez badago", dio Camposek. Dioenez, bizitzako beste hainbat esparrutan bezala, dirua duen eta dirua behar duen jendea dago eta, hortaz, finantza-interesek uteroen alokairua babesten dute: "Zenbat emakume aberatsek erdituko dute bitartekorik gabeko emakume txiroentzat? Hortaz, zer da haurdunaldi solidarioa? Gizon aberatsek emakume txiroak erosten dituzte; hori da errealitatea".

Gestazio subrogatua legezkoa da Europako hainbat lekutan: Errusian, Ukrainan, Grezian, Georgian eta Erresuma Batuan, esaterako. Espainian legez kanpokoa da; erditzen duen emakumea da legalki umearen ama. Frantzian ere delitua da eta isun ekonomikoarekin zein kartzelarekin zigortu daiteke. Hala ere, bada bide horretara jotzen duen jendea. "Ezkutukoa denez, ezinezkoa da zifra zehatza jakitea, baina *'Son nuestros hijos'* (Gure semeak dira) gestazio subrogatu bidezko familien elkartearen baitan, 100 bat izan dira 2016an hautu hori egin dutenak Hego Euskal Herrian", kontatu digu Camposek.

Haurra jaio ostean ere, inkubagailu lana egin duen emakumea arretagai

"Emakumeen gorputzen alokairua legeztatzeak, bederatzi hilabetez euren askatasuna eta autonomia desagertzea ekarriko du. Gorputz horiek erosleen eskuetan egongo baitira", dio Camposek. "Saldu eta alokatzen diren gorputzak emakumeonak dira eta eurak dira jabeak. Baina apenas jartzen den arretarik haien gain. Garrantzia ematen zaio inkubagailu lana egiteari eta denbora horretan haurrari jana, edana, odola eta berotasuna emateari. Behin haurra jaio ostean emakumearen gorputza eta haren osasun mentala ez dira inorentzat lehentasuna. Obulo ernalduak ezartzean, haurdunaldia aurrera daraman emakumea "desagertu" egiten dela esan digu. "Jada garantzia gutxi ematen zaio emakumeari, orain indar handiena beste baten obulo batek izateko ere".

Feministen 'Gure gorputzak gureak dira' aldarrikapenaz ere hitz egin digu EHUko irakasleak. "Baina esaidazu: uteroa alokatu duen emakume batek abortatu dezake ageriko esplotazio eta esklabotza pairatzen ari denean? Noiz arte da gorputzaren jabe? Kontraesan handia da emakumeen eskubideez hitz egitea inkubagailu lana egiten duen emakumeari gertatzen zaiona axola ez zaienean".

Camposen ikuspuntutik emakumea objektu eta produktu kontsideratzen du jendarteak eta kasu honetan baita umea ere. "Beti izan naiz kritikoa amatasun biologikoarekin, zure odol bereko haurrak izateko obsesioarekin. Bitartean milaka haur miserian bizi dira, mugetan edo gerretan desagertzen dira. Baina nork bere odoleko haurrak eta perfektuak izan nahi ditu. Gaixotasunarekin jaiotzen dena, adibidez, zer? Zalantzan jartzen dut erosleak haur inperfektua nahiko duenik". ■

Justo Bolekia Boleká

“Ekuatore Ginean ez dago estatus ofiziala duen hizkuntza autoktonorik”

Ekuatore Gineako hizkuntzen egoeraz EHUko Letrak fakultatean hitz egin zuen joan den martxoan Justo Bolekia Boleká irakasleak (Santiago Baney, Bioko uhartea, 1954) Unesco Katedrak eta Manuel Iradier Afrikazale Elkarteak antolaturiko ekitaldian. Bolekia doktore da Madrilgo Konplutentse eta Salamancako unibertsitateetan eta Frantses Filologia Saileko irakasle katedraduna Salamancakoan. Jaioterriko bubi hiztuna da eta haren aldeko ekimenetan saiatua, elpueblobubi.com atarian ageri denez.

Miel A. Elustondo
ARGAZKIA: ZALDI ERO

Zure izenak badu historia, ez Justo ez beste, Busupé zarela esan zenuen hitzaldian.

Ez duzu nolanahiko izena. Herenaitaitaren izena dut, birraitaitarena, aitaitarena, aitarena... Txikitan ere, Busupé hots egiten zidaten aitaren lagunek. Halarik ere, nire adinkideek ez zeukaten horrelako lizentziarik, ez zuten nire baimenik. Horrela da gure kulturan. Nire adineko inork nire oniritzirik gabe niri Busupé deitzea iraintzat hartuko nuke eta aurre egingo nioke. Ni baino zaharragoek, aldiz, haizu zuten niri Busupé hots egitea.

Madrilera heldu zinen 1977an, eta laster zinen unibertsitatean. Lehenengo eskola egunak badu historiarik.

Sartu da irakaslea, eta ni zutitu, gure herrian ohi zenez. Eta gainerako ikasleak, eta irakaslea bera, niri begira. Ni nabarmen, zutik, eta are nabarmenago, beltza dut larruazala. Jarri nintzen halako batean ere, baina segituan, irakasleak: “Hi!”. Ni, neure artean: “Ez da niri ari! Etorri berria naiz!”. Ondoko ikasleari zuzendu nintzaion: “Hiri ari zaik!”. “Ez, ez, hiri ari zaik!”, berak. Zutitu nintzen, eta irakaslea galdezka: “Nola duk izena?”. “Justo da nire grazia”. “Justo? Hi beltza eta Justo? Eta ni zuria izanik, zein ote da bada nire izena?”. Ataka horretan, izena Busupé nuela erantzun nion. Ahoskatzeko gauza ere ez zen izan, jakina.

Zer ekarri zuen pasadizo horrek?

Kontzientziazioa, identitatearen bila ibiltze bat, neure kulturan ez hazia izateagatik datorren haserrea, amorrua, frustrazioa... Gauza asko. Izenak, gure kasuan, identitate jakin bat dakar, hizkuntzak identitate jakin bat dakarren moduan, identitatearen oinarri baita hizkuntza. Madrileko unibertsitateko anekdotak neure kulturaren esentzia berreskuratzen lagundu zidan. Askok ez du hitza maite, “esentzia”, esentzialtasunak singularra esan nahi duelako, eta singulartasunak, partikulartasunak, talka egiten du gauza komunaren kontra. “Ni bubi naiz... ni euskalduna... ni katalana...”. Horrek, dudarik gabe, talka egiten du homogeneotasuna besterik aldarrikatzen ez dutenen kontra, politikoki zuzenaren eta konbentzionalismoaren kontra.

Bazen lelo bat, arrazakeriaren kontrako kanpaina baten goiburu sortu zutena: “Berdinak gara, ezberdinak gara”.

Kultura guztietan dago pertsonak garuneko hemisferioak garatu baino lehen hezteko nahia. Pertsonak homogeneotasun hertsi baten barruan hezten direnean, alferrik da hortik ateratzen saiatzea. Neke da delako pertsona hori helduarora iritsi eta gero homogeneotasun horretatik atera dadin saiatzea, inoren singulartasunaren eta esentzialtasunaren kontra altxatzeko jarrera izango baitu. Ez du merezi haien desarrazoiaren aurka jardutea.

Zein da Ekuatore Gineako hizkuntza mapa?

Gure herrialdean, %75ak fan hizkuntza hitz egiten du, %15ak bubi hizkuntza, eta gainerakoek ingeles pidgin-a eta beste hizkuntzaren batzuk. Hala ere, espainola, frantsesa eta portugesa dituzu hizkuntza ofizialak. Bubi hizkuntzak, esaterako, ez du batere ofizialtasunik, estatusik ez, ez ordenamendu juridikoan, ez oinarrizko legean, konstituzioan. Gure herrialdean ez dago estatus ofiziala duen hizkuntza autoktonorik.

Nola bizirauten dute hizkuntza ez-ofizial autoktonoek Ekuatore Ginean?

Hizkuntza zein den. Fan hizkuntza, adibidez, Ekuatore Ginean ez ezik, Gabon, Kongo eta bestetan hitz egiten da, hiztun asko baino gehiago ditu. Bubiari

» "Bubi hizkuntza galduko bagenu, herri bezala desagertuko ginateke"

» "Erabilera borondate politikoaren gorabehera da, sustatu egin behar da"

dagokionez, bubi hiztunek beren hizkuntzari eusteko duten borondate irmoari esker irauten du. Are gehiago orain, gazte belaunaldiak kontzientzia hartzen ari baitira, hizkuntza beren identitate eta kulturaren oinarri dela jabetzen. Musikari gazteek bubi hizkuntzan kantatzen dute, antzezleak bubiz ari dira, ohitura eta erritual zaharrak berreskuratzen ari direnak ere bubiz ari dira... Mugimendu horrek hizkuntzari bizirauten laguntzen dio.

Ez-ofizialtasunak ere baditu ajeak.

Ez dugu eskola publikoan irakasterik, kultur etxeetan izan ezik. Eta hori onenean, gobernuak bere burua "mehatxatua" ikusten duen kasuetan kultur etxea herstera jotzen baitu, iaz gertatu zen moduan.

Zertan da familia transmisioa bubi hizkuntzaren kasuan?

Espainola eta frantsesa ahalduntze sozioekonomikoaren hizkuntza bihurtu direnez, guraso askok nahiago dute beren seme-alabek espainolez, frantsesez edota ingelesez hitz egin dezaten, uste baitute hizkuntza horiek jakinez gero errazago inguratuko dutela lana. Familia transmisioak huts egiten duenean, gogo onez hartuko genuke eskolak hizkuntza irakastea. Haurrak ikusten du gurasoek etxean hitz egiten duten hizkuntza ez dela berak eskolan ikasten duena. Egokiera horretan, ikusiko balu irakasleak agintzen diola gurasoei edo aitaita-amamei galdetzeko nola esaten diren gauzak beraien hizkuntzan, jakin-mina piztuko litzateke haurraren baitan, ikasteko bidean jarriko litzateke.

Irakasteak erabilera ekarriko luke automatikoki?

Ez, hizkuntza asko irakasten dira eskolan, baina ez dira erabiltzen. Atzerriko hizkuntzen kasua da, adibidez. Irakasten dira, ikasten dituzte, baina ez dira erabiltzen. Lehenengo, ez dagoelako erabiltzeko beharrik. Hemen, esaterako, solaskideak espainolez mintzo zaizkizue, eta denok dakizue espainolez. Ez dakienak ez du zertan ahalegin txikiena ere egin euskaraz ikasteko, edo hitz egiteko. Erabilera ez da, bakarrik, hizkuntza irakatsi eta ikastea. Erabilera borondate politikoaren gorabehera da, sustatu egin behar da, pizgarriak asmatu, erabiltzen duen jendea saritu, merezimendua aitortu. Horrela bultzatuko duzu jendea dena delako hizkuntza erabiltzera. Saririk gabe, nekez.

Zer gertatuko litzateke bubi hizkuntza galduko balitz?

Herri bezala desagertuko ginatekeela. Kulturari dagokionez, desagertu egingo ginateke, pertsona gisa bizirik iraungo bagenuen ere. Bada ondorengo belaunaldiei helarazi nahi diegun ondare bat, eta ezin dugu ondare hori gaztelaniara itzuliz transmititu. Ez du zentzurik.

Europako herrialde askotan arazo da hizkuntza bat baino gehiago izatea. Elebitasunak pena eta neke handiak ditu. Nola kudeatu Afrikako herrialdeetako hizkuntza mordoa?

Afrikako politikarien maila intelektual eskasak eragotzi egiten du hizkuntza politikarik, eta kontinenteko estatu askotako eleaniztasuna kudeatzea. Ez litzateke zaila ere, hizkuntza bakoitza espazio jakin batean lokalizaturik baitago, eta hizkuntza bakoitza legez aski babestua egon baitaiteke espazio horietarik bakoitzean. Eragozpenik gabe irakatsi beharko litzateke Lehen Hezkuntzako eskoletan tokian tokiko hizkuntzan irakurtzen eta idazten, neska-mutilak nahitaez ikasiko baitu atzerriko hizkuntza ofiziala kalera orduko. Aldiz, bere-berea duen hizkuntza autoktonoa ikasteko ez du eskola beste biderik izango. ■

EZTENAK KENDUTAKOA, EZTENAZ OSATU

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Louis Braillek itsuek idazteko eta irakurtzeko sistema bat asmatu zuen, soldaduek erabili ohi zuten kode batean oinarrituta. Baina sistema ez zen Braille hil eta gero arte zabalduko.

Coupvray (Frantzia), 1809ko urtarrilaren 4a. Louis Braille jaio zen Paris inguruko herrixkan. Hiru urte zituela, aitaren lantegian jolasean, larrua lantzeko ezten edo puntzoi batekin begi bat zauritu zuen. Zauria gaiztotu eta infekzioak beste begia hartu zion handik aste batzuetara. Azkenean, haurrak infekzioa gainditu zuen, baina ikusmena betiko galdu zuen bi begietan.

Mutikoaren jakinminak eta gurasoen jarrera egokiak bultzatuta, Louis Braille Parisko Gazte Itsuentzako Institutu Nazionalean onartu zuten hamar urterekin. Eskola aitzindaria izanagatik, metodoak ez ziren oso berritzaileak eta, nagusiki, irakasleak ahoz komunikatzen ziren ikasleekin. Valentin Haüy eskolaren sortzaileak asmatutako sistemaren bidez irakurtzen ere irakasten zieten. Haüyren liburuak latindar alfabetoan eta erliebean zeuden idatzita. Garestiak, astunak, urriak eta irakurtzen zailak ziren eta, halabeharrez, informazio gutxi jasotzen zuten. Sistemaren muga nagusia zen begien hizkuntza erabiltzen zuela hatzentzat.

Eskolan zeuden hamalau liburuak behin eta berriro irakurri ondoren, Braillek ukimenaren bidez irakurtzeko –eta, zergatik ez, idazteko– sistema berria nahi zuen. Hala, hamabi urte zituela Charles Barbier kapitainaren berri izan zuen. Batzuek diote lagun batek irakurri zion artikulu batean izan zuela haren berri; beste batzuen arabera, Barbier bera hurbildu zen eskolara, gerran ilunpean komunikatzeko erabiltzen zuten sistema azaltzera. Hamabi puntuz eta marratxoz osatutako kodea erabiltzen omen zuten, Paper lodian markatzen zituzten zeinuak eta soldaduek, gudu-zelaian, hatzez irakur zitzaketen mezuak, ilunpean eta isil-isilik.

Hamabost urte betetzerako, Braillek soldaduen sistema egokitua eta hobetua zeukan. Irakurtzen zailak ziren marratxoak kendu zituen, kodea sei erliebedun puntutara mugatu zuen eta letrak zuzen eta bereiz idazteko eta irakurtzeko eredua sortu zuen. Idazteko eztena erabiltzen zuen, haurtzaroan itsutu zuen tresna bera.

1852an hil artean, Louis Braille Itsuentzako Institutuan aritu zen irakasle. Baina sekula ez zioten aukerarik eman bere sistema erabiltzeko. ■

BETTMANN

Lanean kontzentratzeko tramankulua

Hugo Gernsback (1884-1967) idazle eta asmatzaileak *The Isolator* izeneko gailua patentatu eta aurkeztu zuen 1925ean. Izenak dioen bezala, kasko nabarmen horrek erabiltzailea isolatzen zuen soinuetatik, ikusmen periferikoa mugatzen zuen eta, hala, arreta lanean jartzen laguntzen zion. Oxigeno botila bat ere bazeukan, erabiltzailea arnasteaz ere kezka ez zedin. Zientzia fikzio modernoaren aitzindari izan zen Hugo Gernsback. Besteak beste, *Amazing Stories* aldizkaria sortu zuen. Eta Zientzia Fikziozko Munduko Konbentzioak banatzen dituen sariak Hugo dute izena haren omenez. Baina kasko isolatzaileak ez zuen arrakastarik izan. Zergatik ote? ■

ARGIA

www.argia.eus/multimedia

Euskarazko ikus-entzunezkoen ezinbesteko erreferentzia interneten

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak
Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.

Dokumentalak
Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.



Web Telebistak
Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.

Solasaldiak
Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.

Film laburrak
Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Elkarrizketak
Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.

Ekitaldiak
Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak
Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Izerdiari izerdiarekin

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

VILLIMAKA FOLIAKI

Palmondoen izerdiak ederki baliatzen dituzte Asia eta Afrika tropikaletan edariak sortzeko.

Uhaga edo ponpa izugarriak dira landareak. Zuhaitz handiak, zer esanik ez. Metro eta erdiko gerribuelta duen pago (*Fagus sylvatica*) batek egunero 400 litro ur behar ditu metabolismoari eusteko. 400 litro ur aurkitu behar ditu non edo han; sustraije ikaragarria garatzen du ur hori aurkitzeko eta enborrera ekartzeko. 400 litro ur horiek hostoetara ponpatu behar ditu ondoren. A ze makinatzarra! Lehengoan nioen nola sasoi berriari hasiera emateko, hostaia hedatu aurretik, ponpatzen duen lehen izerdi gordina kentzen zaion urkiari (*Betula spp.*). Baba (*Vicia faba*) eta ilar (*Pisum sativum*) berriak omen dira, gero, gutiziak, zer ote da, orduan, urki izerdia?

Ez zaio urkiari bakarrik kentzen izerdi berri hori. Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan azukrearen astigarra (*Acer saccharum*) jezten da, eta Kanariar Uharteetan, bertako palmondoa (*Phoenix canariensis*), "guarapoa" edo "palmondo eztia" deitzen duten edaria egiteko. Txilen, berriz, beste palmondo bati kentzen diote izerdia, kanpotarrek "Txileko palmondoa" eta bertakoek "eztiaren palmondoa" deitzen dutenari, *Jubaea chilensis*. Datil palmondoaren (*Phoenix dactilifera*), kokondoaren (*Cocos nucifera*) eta Palmyrako palmondoaren (*Borassus spp.*) izerdiak ederki baliatzen dituzte Afrika eta Asia tropikaletan: "tuba" egiten dute Filipinetan, "tuak" Indonesian eta Malaysian, "kallu" Indian, "addu bondia" Maldibetan eta "karewea" eta "kamamaia" Kiribatin, "matango" Kamerunen, "oguro" Nigerian, "poyo" Sierra Leonan, "nsamba" Kongon, "manjenvo" Angolan, "nsafufou" Ghanan, "htan yay" Myanmarren, "mnazi" Kenian, "bahar" Borneon...

Eta abar. Gure buruan kabitzen ez den mundu izugarri bat da zuhaitzen izerdiarena. Ur azukreduna denez, beretik sorkin ugari egiteko lehengaia da. Irakin eta irakin eginez azukrea bera lortzeko. Bere horretan irakiten edo hartzitzen utzita azukrea alkohol bihurtuko da, eta, hala, izerdiaren ardoa sortuko da. Irakite hori osatu aurretik tartean moztu edo gerarazi gero pitar modukoa izango da. Irakinaldia eten ezean, ozpina.

Tropikoetan, lama batean bizi izanda, izerdi patsa eragozteko, landareen izerdiaren eratorri horietako edozein da ona; han ere, noski, gustatu egin behar... Zenbait tokitan ezkontza ospakizunetako edari estimatuena da. ■

ETXALDE APP-A

Elikadura burujabetzarantz pausoak emateko aplikazio berria

Garazi Zabaleta
@tirikitrann

Teknologia berriek gure bizitzetako esparru ia guztiak hartu dituzten honetan, elikadura burujabetzaren alde zein aukera izan zitzaketen galdetzen zuten hainbat elkartek. Hortik sortu da jada martxan dagoen Etxalde App mugikorretarako aplikazioa. Elikaherria, Bizilur, Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra eta EHNE Bizkaiak jarri dute martxan proiektua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru laguntzarekin eta "Bide Berriak: komunikazio sare berriak elikadura burujabetzarako" proiektuaren barruan.

Gure kontsumo-erabakien eragina ezagutzen

"Beharrezkoa da gure kontsumo erabakiek dituzten eraginen inguruan pedagogia egitea eta erabakiok elikadura burujabetzaren printzipioen araberakoak izatea". Horrela azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek aplikazioaren ideia bere webgunean.

Izan ere, erosketak egiterakoan produktu bakoitza elikadura burujabetza definitzen duten kriterioen arabera ebaluatzen du aplikazioak: sasoiko produktua den, gertutasuna, printzipio agroekologikoetan ekoiztua izan den edota ekonomia sozial eta solidarioko sare baten baitan ekoiztua izan den kontuan hartuta, produktu horrek inguruan duen eragina azaltzen dio erabiltzaileari.

Sasoiko egutegia

Bestalde, sasoiko produktuen egutegia ere eskaintzen du Etxalde App aplikazioak. Geolokalizazioaren bidez edo erabiltzaileak hautatutako kokalekua erabilita, inguruan dituen sasoiko produktu freskoen berri ematen die erabiltzaileei.

"Bertako produktua erosteak bertako ekonomia laguntzea esan nahi du, ekoizpenerako eta garraiorako energia gutxitzen da, eta nutrizio-ezaugarri eta zapore guztiaz gozatzeko aukera ematen du", diote aplikazioaren webgunean sasoikoa kontsumitzearen garrantzia azpimarratzeko.

Edonorentzat eskuragarri dago jada Etxalderen aplikazioa Google Play dendan, eta proiektuaren inguruko informazio gehiago nahi duenak, berriz, etxalde-app.elikaherria.eus webgunean aurkituko ditu xehetasun guztiak. ■

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Webguneko edukiak zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikuluak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: **bizibaratzea@bizibaratzea.eus**

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Apirilak 27: Atxondo
Jakoba Errekondoren hitzaldia
17:00etan, eskolan. *Berton Bertokoa* ekimenaren baitan.

Apirilak 29-30: Aia
Landare berezien XV. Azoka
Iturrarango lorategi botanikoan. Igandean, 11:00etan, *Altza Porru* liburuaren aurkezpena egingo da.

Apirilak 29: Elosu-Bergara
Jakoba Errekondoren hitzaldia
10:30ean, elkarte gastronomikoan.

Apirilak 30: Hondarribia
Urmaelen ikastaroa
Endanea Gardenen, 11:00etan hasita, *Urmaela, teknika eta zainketa* ikastaroa emango du Unai Gonzalezek. Informazio gehiago 943641710 zenbakira deituta.

Apirilak 30: Arizkun
Dolare barrokoan bisita gidatua
10:00etan eta 12:00etan. Harremanetarako: 652 16 21 03 / 696 13 36 86.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN
edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO
www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT

Aste honetako nabarmendua | *"ZELULOIDEZKO BEGIRADAK" LIBURUA* | 4

Euskal Herriko 13 zuzendarirekin hizketan

Dena esan dezake zinemak, osotasun handiena du artistikoki eta komunikazio modu onena da, erritmoarekin, hitzekin, argi eta itzalekin… leku batetik bestera eramaten zaituelako, berak nahi duen bidea jarraituz. Beste arte diziplinek ez duten abantaila handi bat dauka gainera: leku ilunean ikusten dira pelikulak eta, aretoa beteta egon arren, harreman intimoa, zuzen-zuzena, sortzen da ikuslearen eta pantailaren artean". Aipu horrekin hasten da liburua, irudien bidez istorio zirraragarriak sortzeko gai direnei hitza emanez. Bederatzi kapitulutan, hamahiru zuzendariri egindako elkarrizketak jaso zituen Mikel Garcia Idiakez ARGIAko kazetariak bere lehen liburu honetan. Parte hartzen duten ARGIAkoen artean launa ale zozketatuko ditugu apirilean zehar.

Koldo Almandoz eta Joxe Mari Goenaga zinema zuzendariak eta Mikel Garcia kazetaria.

Eragile hau hobeto ezagutzeko:

ZELULOIDEZKO BEGIRADAK
EUSKAL HERRIKO 13 ZUZENDARIREKIN HIZKETAN

Liburuak eskatzeko: mgarcia@argia.eus

#kulturgintza
#euskara
#zinema

Apirileko sariak

1

Gorka Suiaren diskoa
4 KD

2

Globalizazioa eta Autoeraketa (Lanki ikertegia)
4 liburu

3

Birak Handmade-ek egindako gerrikoak
2 gerriko

4

Zeluloidezko begiradak
4 liburu

Parte hartzeko: ✆ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Apirilaren 6an Oihaneder Euskararen Etxean egin zen ARGIAzaleen topaketako une bat.

ARGIA EGUNA

Araban ospatu eta erdigunera ekarri

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

ARGIA Gasteizera joatekotan zela kontatu nizun duela hiru bat aste, gogoratzen? Sorpresatxo bat ere emango zuela... Ez pentsa gezurra zenik, egin da Arabako hiriburuan topaketa bertako ARGIAzaleekin, eta Gasteizen ospatuko da aurtengo ARGIA Eguna. Horra sorpresa!

Jokaldia, ordea, ez da inposatua izan; bertaratutako eragile eta norbanakoei planteatu zaie urteroko zita bihurtzen ari dena 2017an Araban egitea, eta bertan baloratu da bai ala ez, egitekotan non egin, Gasteizen bada Alde Zaharrean edo auzoren batean, Lautadako herriren batean... Eta potentzialitate handiena hiriburuari berari ikusi zaio. Azken urteetan oso indartsu dago eragile eta dinamika sozialen esparruan, baita euskararen arloan izan duen bilakaeran ere. ARGIAk horregatik zoriondu nahi du, ARGIAk Gasteizekin ospatu nahi du hiria ematen ari den itzulia, egiten ari den bidea eta sortzen ari diren mugimenduak.

Baina zer da, baita ere, apirilaren 6an egindako topaketara bertaratu zirenentzat ARGIA? Zergatik sartuko dira horrelako egun bat antolatzeko lanetan? Zer da ARGIAk eskaintzen diena? Galdera hauek ere bota ziren Oihaneder Euskararen Etxean. Zenbait eragilek azpimarratu zuten ARGIAk asko ematen diela beraiei, beraien ekimenei, baloreei; eta orain ARGIA han izanda eragileak ere emateko prest daudela. Baina nabarmendu nahi izan zuten, hori bai, aisialdirako ekintzez gain ARGIAk edukietan asko eskaini dezakeela eta festa egitaraua edukiz ere bete nahi dutela.

Zazpigarren alaba. Ez aurrenekoa edo bigarrena. Zazpigarrena. Arabarrek oraindik ere asko aipatzen dute erdigunea eta periferiaren kontzeptua. Periferiatik hitz egiten dutela sentitzen dute, kanpo geratzen direla sarri. Eta ARGIArekin elkarlanean gasteiztarren eta arabarren gogoeta sakon bat egon daiteke, hausnarketa bat. Bizitza erdigunera ekarri behar dugula diogunean, zertaz ari gara bada? Hori ere ez al da bizitza erdigunera ekartzeko pausoa? ■

> *"(ARGIAkoa egin naiz) Herri mugimenduei ahotsa ematen diezuelako, iturri ezberdinak erabiltzen dituzuelako eta pantaila gehiegiko mundu honetan, papera berreskuratu nahi dudalako"*
>
> **Iker**,
> ARGIAkoa

> *"(ARGIAkoa egin naiz) Hedabide burujabeen aldeko pauso bat ematearren, dauzkadan medio apurrekin bada ere"*
>
> **Iñaki**,
> ARGIAkoa

> *"(ARGIAkoa egin naiz) Euskaltzaletasunaren eta balio hezitzaileen ikuspegiaren hedapena bultzatzeko, baita justizia sozialarena eta ikuspegi kritikoa ere"*
>
> **Aitziber**,
> ARGIAkoa

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:** Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:** Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:** Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:** Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:** Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:** Ostegunetan, 10:30ean.

Lisabö

Bidehutsen 10. urteurrenaz

"Beste alor askotan ohikoa den logika asanblearioa musikara eraman dugu, besterik ez"

Zer da? Diskoetxea? Zigilua? Lagun taldea? Kolektiboa? Marka? Abizenak abizen, 10 urte bete berri ditu Bidehutsek, denera 39 lan argitaratuta. Karlos Osinaga eta Eneko Aranzasti Lisaböko kideak elkartu ditugu urte hauetan guztietan egindakoaz eta euren antolatzeko moduaz hitz egiteko.

Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea
ARGAZKIA: KOSTELO

Agenda estua dutela-eta, arratsaldeko 20:00etan elkartu gara Bonbereneako estudioan. Sei urte inguru daramate Lisabörekin ezer kaleratu gabe, eta hala ere, jarraitzen dute Bidehutseko asanbladatara joan, iritzia eman eta halako elkarrizketak egiten. Hori omen da Bidehutsen osasunaren eta indarraren seinale onena. Haien ingurune naturalean gaude, mikrofono eta instrumentuz inguratuta.

Zein zen egoera orain 10 urte, Bidehuts sortu zenutenean?

Karlos Osinaga: Ez dakit zenbat den benetan gertatu zena, eta zenbat den errepikatzearen errepikatzeaz gogoratzen duguna: Lisabön aspalditik genuen argi noizbait lanak geure kabuz kaleratuko genituela. Orain hamaika edo hamabi urte gu Metak diskoetxearen egituran sartuta geunden, baina orduan jada bagenuen Inoren Ero Ni-rekin batera single bat gure kabuz egiteko gogoa. Biniloa nahi genuen, eta Metaken ez zuten horrelakorik egiteko ohiturarik. Haiekin adostu genuen baietz, noizbait single autoeditatu hori kaleratuko genuela

2006an Metak itxi zuten ordea. Diskoetxe bat ixten denean lehenengo pena sentitzen duzu, baina segituan dator galdera: orain zer egingo dugu? Une hori izan zen aitzakia onena zerbait berria egiten hasteko. Asko hitz egin eta eztabaidatuz erabaki genuen Lisabö, Anari, Hotel eta Inoren Ero Ni elkartuta Bidehuts sortzea.

Eneko Aranzasti: Pentsa, azkenean, buruan genuen single hori ez zen lehenengo erreferentzia izan, zazpigarrena baizik. Oso denbora laburrean lan asko kaleratu genituen. Oso urte intentsoak izan ziren lehenengo haiek, baina dibertigarriak ere bai. Gauza asko egiten ez genekien, eta berria izan zen guretzat...

Lau talde hasi zineten, eta gerora, beste mordoxka bat ere bidera batu da. Laguntasuna garrantzitsua izan da horretan?

E. Aranzasti: Niretzat Bidehuts da lagunarteko proiektu bat, eta hori funtsezkoa da. Batzuetan pentsatzen dut: galdetuko balidate zein talde ekarriko genukeen Bidehutsera, orain 10 urte esango nituen mordoxka bat, eta orain, uste dut bakarra ere ez nukeela esan-

go. Ez da musika soilik, erabakiak hartu behar dira, eztabaidatu... eta horretarako afinitate berezia behar da.

K. Osinaga: Kanpotik edo distantziatik gauzak beste modu batera ikusten dira, baina hau ez da beste munduko gauza bat. Zerbait behar duzu, antolatzen zara eta aurrera eramaten duzu. Normala den bezala proiektuak zure inguruko jendearekin jartzen dituzu martxan, eta guk ere halaxe egin genuen.

E. Aranzasti: Gauzak pausoz pauso egiten dira, batzuetan atzera ere eginda. Bidehutsen ez dugu inoiz oso urrunera begiratu, pixkanaka egin ditugu gauzak, erabakiak hartu... Planifikazio handirik gabe. Gauzak eztabaidatu ditugu zetozen bezala, eta pixkanaka egin dugun horrek eman dio forma Bidehutsi. Barne funtzionamenduan jarraitzen dugu adibidez, oraindik ere nola izan behar lukeen eztabaidatzen (barre egin du). Agian lortuko dugu hogeigarren urteurrenerako.

» **KARLOS OSINAGA:** "Gure jarrera profesionala izan da ahal izan dugunean, baina benetan profesionalak izan gabe"

» **ENEKO ARANZASTI:** "Ez dugu inoiz oso urrunera begiratu, pixkanaka egin ditugu gauzak"

Ez duzue tentaziorik izan globalagoa den zerbait egiteko? Nik zer dakit: elkartu ahal beste musikari eta…

K. Osinaga: Bat ere ez, eta nahita ere, ezin izango genukeen. Bilera guztiak gure aisi denboran egiten ditugu, inork ez du honetan lan egiten, eta beraz, aukerarik ere ez dugu izan zerbait handiagoa egiteko. Gure jarrera profesionala izan da ahal izan dugunean, baina benetan profesionalak izan gabe.

E. Aranzasti: Ez dugu izan, ez, eta horren islada da *Txinaurriak* diskoa. Ez

zuen izan nahi belaunaldi batek Mikel Laboari egindako omenaldi bat, lagunartekoa baizik. Bestelako asmo handirik gabea, eskerrak emateko modu bat. Bidehutsen egiten dugun beste guztian ere, oinarrizko ideia hori da.

Lisaböri buruz esan izan duzue esplizitua ez bada ere, badagoela atzean zera etiko edo politiko bat. Gauza bera esango zenukete Bidehutsez?

K. Osinaga: Egia esan, ez dakit. Ez dugu inoiz denen artean adostu.

E. Aranzasti: Bakoitzak buruan izango du bere filosofia, baina uste dut lan egiteko duen moduan badagoela politikoa den zerbait. Modu asanblearioan funtzionatzen duen diskoetxe bat gara, azken finean.

Internetek ekarri dituen aldaketekin eta abar, orain asko dira autoekoizpenaren bidea hartu dutenak. Modu indibidualagoan egin dute ordea, talde bakoitzak bere kabuz…

K. Osinaga: Orain dela 10 urte autoekoizpenak bazuen puntu kutre bat, "zuk egiten duzu inork ez duelako diskoa atera nahi". Gero, izen handiko musikariak hasi dira gauza bera egiten, eta asko aldatu da pertzepzioa.

Gure kasuan, badugu eredu garbi bat: Washingtonen sortutako zigilu bat, Dischord Records, besteak beste Fugazi taldeak bultzatua, eta beraien filosofia. Guretzat, gure jarrera *underground* eta industriaren logikaren kontrakoa izan da beti. Hasieratik argi genuen talde batzuk biltzea nahi genuela. Ez genuen handitu nahi, baina bai guk irekitako bidea baliagarri izatea beste batzuentzat ere. Ni edozein tokitan egon naizenean norbaiten laguntzarekin izan da, eta hori bera egiten ere saiatu gara gu. Konpartitzen, eta irekita dagoen bide bat, beste batzuei ere zabaltzen.

E. Aranzasti: Aurreko galderarekin lotuz, niretzat, jarrera politiko bat badago horretan: guk bidea egin genuen, eta bagenituen beste lagun batzuk hori aprobetxatu zezaketenak… Baina ez genien esan, "hau dut, nahi duzu aprobetxatu?". Esan genien, "guk hau egin dugu, hemen duzu mahaia, mailua, iltzeak, etorri eta egin zuk zeuk".

K. Osinaga: Batzuek egin dute bide hau ekonomikoki interesgarriagoa iruditu zaielako, eta hori ere legitimoa da, eta ulertzekoa gainera. Batez ere diskoetxe askotan taldeentzako portzentajeak oso txikiak zirelako garai batean, Esan Ozenki bezalako salbuespenekin. Horregatik, gaur egun bere egitura propioa duen talde batek autoekoizpenerako saltoa egitea normala da.

» **KARLOS OSINAGA:** "Badugu eredu garbi bat: Washingtonen sortutako Dischord Records, besteak beste Fugazi taldeak bultzatua, eta beraien filosofia"

» **ENEKO ARANZASTI:** "Bidehutsen ez dugu kontraturik. Bakoitzak egiten du bere bidea eta une batzuetan elkartu gaituen bezala, beste batzuetan urrundu egiten gaitu"

Errazagoa ere izango da, ziur asko, beste talde batzuekin eztabaidatu gabe erabakiak hartzea…

E. Aranzasti: Bada errazagoa, bai. Zurea egiten duzu, taldekideen artean eztabaidatu, eta listo. Bidehutsen kasuan, taldean eztabaidatu ondoren, asanblada dator. Eztabaidatzen jarraitu behar duzu, zure lagunak direnekin, gainera. Pauso hori emateak asko eskatzen du.

Dena den, Euskal Herrian hau ez da berria, horrela egin da beste mila aldiz. Musikalki baditugu eredu batzuk, baina eguneroko bizitzan milaka eredu daude. Guk musikara ekarri dugu egiteko modu hori.

Txuma Murugarrenek zioen ARGIArako elkarrizketa batean berak sortu egin nahi duela, beste lan guztiak ere bere gain hartu behar izan gabe. Nola ezkontzen da hori autoekoizpenaren ideiarekin?

K. Osinaga: Hori ere ulertzekoa da. Nik ez dut esaten tade bakoitzak bere kabuz egin behar duenik diskoa. Esfortzu handia da. Lisabören kasuan, sorkuntzarako denborarik ez dugu beste motibo batzuengatik… Baina egia da, energia eta denbora eskatzen duela autoekoizpenak, denean aplikatzen bada batez ere.

E. Aranzasti: Txuma Murugarrenek esandakoa oso zintzoa iruditzen zait. Batzuk esaten dute: "Autoekoizpena egiten dut eta horrela nire lana kontrolpean daukat". Baina ulertzen dut Murugarrenena ere: "Ni musikaria naiz, kantuak egin nahi ditut, eta hortik aurrera datorren lana egingo du besteren batek…". Gure kasuan, kanpoko enpresa batek eramaten duena zabalkundea da, eta posta-salmenta edo prentsa bezalako ardurak ere banatuta ditugu. Horrek lan pixka bat kentzen die taldeei, baina hala ere, promozioa, ekoizpena eta beste guztia talde bakoitzaren esku geratzen da.

Willis Drummond taldearen azken diskoa ez du Bidehutsek kaleratu. Nola kudeatzen dira erabaki horiek?

E. Aranzasti: Bidehutsen ez dugu kontraturik. Bakoitzak egiten du bere bidea, eta une batzuetan elkartu gaituen bezala, beste batzuetan urrundu egiten gaitu, naturaltasunez, bizitzaren beste alor guztietan bezala. Bidehuts denerako eta eskatzen duen denerako, 10 urtean talde bakarrak bidea utzi izana, oso zenbaki ona da.

K. Osinaga: Beste modu batera esanda, gauza handia da bertan gaudenok oraindik hor jarraitzea. Adibidez aurten, Anarik *Epilogo bat* kaleratu izana niretzat opari bat izan da, fan eta musikazale bezala, eta baita Bidehutseko kide bezala ere.

E. Aranzasti: Lisabören kasua, adibidez, berezia da. Sei urte inguru daramatzagu ezer kaleratu gabe, eta hala ere Bidehutsen jarraitzen dugu. Taldeetako kideak daude, eta gero Lisabökoak, jo gabe, diskorik kaleratu gabe, baina hortxe… (barre egin du). Horrek, asko esaten du, nire ustez. ■

Trikun trakun eginez

Maskaraden sasoia aitzina ari da Zuberoako herrietan barrena eta igande oroz buhameak, predikuekin, ibarrak alegeratzen eta kitzikatzen dabiltza. Plazak, irriz, zirtoz, oihuz eta punpa sinets ezinez betetzen dira, aldamenean taloak adelatzen dituzten ikastoletako gurasoen mahaiak zalantzan jarriz. Buhame airosak agertzen direlarik neguak lotara eraman jendartearen zainak ikaratzen hasten dira: seinale bat da!

Itxaro Borda
IRUDIAK: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Resurrección María Azkue kantu zahar biltzaile bizkaitarrak, iragan mende erditsutan, paperean etzan zituen *Buhameak Badakite* bertsoak, Baigorrin jasoak baina berri-emailearen izenik gabe. Ez zitekeen apeza. Nafarroa Beherean eta Zuberoan ezaguna den abestia ihauteri denboretan eskaintzen da dantza sotil eta kokin batez hornitua: ezker, eskuin, ezker eta hiru... Jauziak markatuz borobilean mugitzen dira dantzariak, maiz haurrak egia erran, eta erritmoan ipurdiak elkar kuzkatzen dituztela, ikuslegoaren txaloak eta barreak sustatuz.

Lupaireton lupaireton
Lupair lupair lupaireton.

Oskorri taldeak 2000. urteko *Ura* albumean bertsio eder bat eman zigun, musikaz aberats eta ahotsez kementsu. Natxo de Felipe eta bere talde-kideek mihiak trabatzeke ahoskatzen dute zentzu handirik ez duen errepika. Hitzen musikaltasunak indar itzela duela ezin uka.

Umeak ginenean gurasoek erabiltzen eta aipatzen ziguten buhameen mintzaira dela pentsa dezakegu. Aski zen silaba bakoitzaren artean, bukaerako letraren arabera pa, po, pi edo pu hizkiak eranstea: *mipilespeskerper* adibidez milesker errateko. Gehituen artean garaturiko erromintxelazko hitzak batu zituzten gaiari interesatzen zitzaizkien ikerlari ezberdinek.

Ai urdea, ai urdea
Urde buhame handia!

Baigorrin, Donibane Garazin, Amikuzen zebiltzan ibiltariak buhameak deitzen ziren, Baztanen aldiz kitoak, batzuetan agoten uhinetan nahasten zirela mugaren bi aldeetan. Jean Barbier (1871-1931) idazleak 1895eko ipuin batean Donazaharreko Antxitxarburukoak betirako finkatu zituen euskal literaturaren orrialdeetan: "...dakiguna da, Antxitxarburutarrak kurutzatzen direla garaztarrekin aspaldidanik. Merkatu-plaza guzietan ageri dira, oliba-kolore, beren ile kixkurrekin, begi beltx ederrekin, bere makil koropilotsuak eskuan, abantxu laborari eskualduna bezala bezti".

Erran behar da denbora haietan bizidun asko ikusten zela bideetan oinez: Oragarreko Uhane auzoa zeharkatzen zuen egunean bitan Klentte deituriko gizon zardaiak. Nondik zetorren, nora zihoan horrelako ziztuan: misterioa zen. Bakartiez gain buhameak ere baziren: Bohemiatik zetozen menturaz Erdi Arotik aurrera, erromintxel, kaskarot, ijito, xito, gitano, kitano, motxaile, bohemio edo vizcaino bataiatua izateko. Mauleko Hebentik elkarteak webgune mamitsua dauka gai hori ardatz eta 2014an, Pier Pol Berzaitzen *Petti Buhamea* pastorala eman zen Garindainen. Salbuespenak salbuespen, sozietatearen partaide oso bihurtu ziren buhameak duela gutxi arte.

Buhameak badakite
Trikun trakun egiten
Trikun trakun egin eta
Oilaskoak ebasten...

Baina, eredu idealetik urrun, euskal gizartea etxearen, etxeko jaunaren eta plaza gizonaren inguruan eraikia zen eta baztertuak baziren, haietan agotak eta buhameak. Haran bakoitzak bereak zituen: Beñat Karrika idazleak Auspoa saileko liburu batean Mehaine eta Armendaritzeko Juana aipatzen du, Mixel Tikoipek Maiatz argitaletxean plazaratu *Hotz Bero* bilduman Amenduze eta Gabadiko lurretan nagitzen ziren Maritza iragarlea eta Arnot goresten zituen. Manez eta Nakosa ahantzi gabe.

Buhameek badakite kantaren bi aldaera kausitzen ditugu. Bata, Azkuek bildua eta bestea, dantzatzeko egokia, Zuberoatik Lapurdira doana. Bigarrena aintzakotzat hartuko dugu: ijitoak oilo ebasle gisa aurkezten zaizkigu. Oiloa laborariarentzat egiazko aberastasuna zen, arrautzak eta igandeetan jateko egokia zen haragi zuria ematen zituelako. Antza denez, oiloak bi etsai zeuzkan: buhameak eta azeria alabaina.

Buhameek badakite
Oilaskoen ebasten
Oilaskoak ebats eta
Sasipean gordetzen.

Soinuak eta hitzak abilki txirikordatzen dituen bertsio herrikoiagoak ere bi kopla ditu, zortzi oinetakoak, errepika batekin. Hemen ere buhameek trikun trakun egiten dute baina ikus-entzuleek laidoz estaltzen dituzte urdeak direla azpimarratuz ironia sakonaz baliatuz. Urdeak, oilaskoak bezala, zinez abere zutabeak

dira euskaldunen bizi-moduetan: urdearekin oraindik ere, begetarianoa ez izanez gero noski, urte guztirako janaria ziurtatzen da, urdaiazpikoarekin jadanik artisau batzuek urrea sakelaratzen dutela. Urdetzat hartua izatea halatan bikoitza da: urdea, zikin fama duelako, gorrotatua bezain maitatua da gure artean:

Buhameek badakite
Trikun trakun egiten
Oiloño bat ebats eta
Altzo pean gordetzen.

Ai urdea, ai urdea
Urde urde handia,
Ai urdea, ai urdea
Urde buhame handia.

Buhameek halaber ebasle ospea zuten. Euskaraz ele anitz dago lagun hurkoa bere ontasunaz desjabetzeko ekintza azaltzeko: ebasleaz gain, ohoina, lapurra, arrobatzailea, ostutzailea… dibertsitate linguistiko horrek ederki frogatzen du gauzak norbaiten borondatez galtzeko arriskua eta lanjerra nolakoa zen orduan. Buhamea, ebaslea izateaz gain, abila da, sosa egiten badaki:

Buhameak erosi du
Lau sosetan ogia
Lagunari saldu dio
Bost sosetan erdia.

Ai urdea, ai urdea
Urde urde handia
Ai urdea, ai urdea
Urde buhame handia.

Komertzio eta afera alorrean trebe ziren buhameak. Kantuko pertsonaiak bederen benefizio polita egin zuen ogia lagunari saltzerakoan. Ezagunak ziren harremanak abileziaz eta amainatzeaz troxatzeko zeukaten jaiduragatik. Ez ziren debaldetan azeriekin konparatzen. Elekari distiratsuak baitziren, herriz herri ibiliz berri frankoren jakitun eta berri horiek barreiatzen zituzten arraiki, gezurrak eta egiak bateratuz.

Baztertuak, zirikatuak, burlatuak izan arren, euskaldunek buhameen konpainia laket zuten, beraiek egin ez zitzaketen lan zenbaiten egiteko, hala nola zareak eta saskiak: zumea eta mihimenarekin esku ona zuten. Udaberrietako euriak euriari, etxeetako aterpeetan gerizatzen ziren, su baten ondoan kedar usaina zekartela larruko poroetatik isurian. Jantziak, xamango hezurrak eta zopa beroak erdiesten zituzten trukean eta behi esnea adin txikiko umeak hazteko:

Buhameek badakite
Sasipean gordetzen
Eltzetzarraren egosten
Salda ona egiten.

George Bizet (1838-1875) musikariak moldatu *Carmen* opera entzutetsuan azaltzen denez, buhameek iragarpenak eta etorkizuna asmatzeko zaletasunak zituzten. Geroa zein izanen zen gose ziren herritarrak, egunerokoa larria zelako ardurenean. Eskuko marrak irakurtzen bazekiten, zehazki, eskuinekoak eta ezkerrekoak, destino itsuaren norabidearen jabe bailiran. Horrela irabazten zuten familia zabalak –tribuak…– mantentzeko adina, eskean, amoinaz, sosa hemen, ardita han, hondarrean hitza eta elea zutela altxor.

Buhameak badakite
Salda ona egiten
Bai eta beren haurrek
Katiluan edaten…

1802an Castellane prefetak Baionako eta Mauleko arrondizamenduko buhameen sarekada erraldoia manatu zuen, Louisiana amerikar estatura deportatuak izateko. Baina itsasoetan gerra zelako Frantzian barna banatu zituzten, gizonak lan gogorretan, emazteak eta haurrak zuzentze zentro berezietan. Francisque Michel (1809-1887) erudituaren buhameekiko gorrotoaren oihartzuna aditzen baldin bada oraindik *Le Pays Basque* (1857) liburua irakurtzerakoan, Iparraldeko gizartean erabat asimilatzea lortu zuten, literaturan eta maskaradetan gatibu aurkitzen direla dagoeneko.

1960ko hamarkadan, hain zuzen ere hippyek bizimodu bohemioa goresten zutela, Euskal Herri barnealdeko azken buhame ibiltariak etxeetan egonkortzera behartu zituen botere publikoak, haurrak derrigor eskolatzeko premia bermatuz, bestela laguntza sozialik gabe bukatuko zutela mehatxatuz. ■

ZINEMA ARETOETAN IRAGARKIAK? EZ, ESKERRIK ASKO

Geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari da zinema aretora sartu eta, filma hasi aurretik iragarki publizitarioak tonaka irentsi behar izatea. Non geratzen dira ikus-entzuleen eskubideak? Hego Euskal Herrian gai honekin lotutako legedia zertan den errepasatu dugu.

Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Ostirala, 17:55. Donostialdeko merkatal gune ezagun bateko zinema areto batean eserita nago *Logan* filma hasteko itxaroten. Leihatilako ordutegi zerrenden arabera, filmak 18:00 hasi beharko luke. 18:02, argiak itzali dira. Iragarki bat. 18:05 hirugarren spot-a. Altzari, kotxe eta lurrin marka guztien errepasoa egin ostean, pantaila belztu eta 18:20 inguru filmaren hasierako tituluak ageri dira. "Sinestezina eta lotsagarria", horiek dira buruan etengabe bueltaka dauzkadan bi adjektiboak. Zenbatetan gertatu zaizue hau? Niri askotan eta nazkatuta nago. Eta kontuz, ez naiz hurrengo hilabeteetan iritsiko diren ekoizpenen trailerrez ari, telebista konbentzionalean normalean ikusten ditugun iragarki horietaz baizik.

Goazen pausoz pauso. Kate horien barruan lanean dabilen lagun batek aitortu zidanez, bezeroek jartzen dituzten erreklamazio eta kexa gehienak gai honekin lotutakoak izaten dira. Jokabide onen kode moduko bat existitzen dela dio eta ezin omen dira iragarkiak txertatu 20 minututik gora. Baina legedira joz gero, ez al dago hau erregulatzen duen araudirik? Niri behintzat, zalantzagarria iruditzen zait sarrerengatik 8 euro ordaintzea eta gainera amaigabeko iragarki-zerrendak irenstea.

Zalantzagarria bai, baina tamalez, legala. Duela ia urtebete, "Zineman publizitate kode etiko" berri bat sinatu zuten Espainiako Estatuan (aurreko legedia 2001 urtekoa zen). Komunikazio Komertzialaren Autoerregulaziorako Elkarte espainiarraz gain, areto hauen publizitatea kontrolatzen duten agentzia esklusibistek sinatu zuten akordio hori, Movierecordek, Discinek eta 014 Mediak. Lege berri horren arabera, "publizitateak leiala, zintzoa eta egiazkoa izan behar du. Ezingo dira pertsonen duintasunaren aurkako irudiak jarri, diskriminatzaileak direnak edo legez kanpoko ekintzak egitera bultzatzen duten mezuak dituztenak". Hiru zatitan banaturiko arau berezien tarte bat ere topatu daiteke. Kodearen barruan ageri diren printzipio batzuk errespetatuz, adingabeentzako filmak baino lehen emititzen dituzten iragarkiek ezingo diete kalte mental, fisiko ala moralik eragin. Edari alkoholikoen iragarkiak erregulatzen dituen atal bat ere ageri da, jakina. Eta azkenik, filmen trailerrei dagokiena. Erabat onartuak daude noski, baina ikustera goazen film konkretu horren kalifikazio bera edo altuagoa izan behar dute. Eta hortxe amaitzen da dena. Kodea gorabehe-

ra, iragarkien iraupenari buruz ezertxo ere ez dago idatzita. Eta zentzu horretan, areto barruan gauden kontsumitzaileok pertsona babesgabeak garela uste dut, ezin baitugu katez aldatu edo pantaila itzali.

Badakit hau negozio bat dela, dirua irabazteko daudela eta ahalik eta etekin handiena lortzeko sistema berriak bilatzen dituztela egunero. Primeran, guztiz ulergarria. Gehiago esango nuke, estrategia komertzial horien barruan, badira gutxiago axola zaizkidan "eraso" batzuk –aipaturiko trailerrak esaterako–. Pelikula 18:00etan hasteko programatuta badago eta ni 17:45ean sartzen banaiz, ez zait axola iragarkiak irenstea, tarte huts horietan "entretenitzea" eta beraiek, gainera, etekina. Bikain. Denak irabazle. Ikusi nahi ez baditut, ordea, kanpoan itxoingo dut ordua iritsi arte.

» Telebistako iragarkiak ikustean, trukean "doako" saio bat jasotzen duzu. Zineman sarrera ordaindu baduzu, zergatik ikusi behar duzu 20 minutuko publizitate-tartea filma hasi aurretik?

Baina 18:00etan nire filma ikusi nahi dut. Krispetengatik ordaintzen badut, trukean krispetak jasotzen ditut. Sarrera ordaintzen badut, trukean filma ikus dezaket. Telebistan iragarkiak ikusten ditudanean, trukean "doako" saio bat eskura dezaket. Zinema aretoan iragarkiak ikustera behartua nagoela? Primeran, utzi orduan dohainik sartzen. Industria zinematografikoari trukean ezer eman gabe, internetetik film bat deskargatzen dugunean, delitua dela diote (ez dut kontrakorik esaten eh!). Baina beraiek guri zerbait "hartzen" digutenean, trukean ezertxo ere eman gabe, horri "marketin adimentsua" deitzen diote. Netflix eta Spotify bezalako plataformengatik ordaintzean, iragarkirik gabeko edukiak jasotzen baditugu, zergatik ez gauza bera zinemarekin? ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bernarda Alba *revisited*

Amaia Alvarez Uria

Koadernoa zuri
ARANTXA ITURBE
Elkar, 2017

Azken aldian euskal antzerkia sasoiko dabilela esango nuke. Poztekoa da *Francoren bilobari gutuna* bezalako antzezlana taularatu izana zenbaiten elkarlanean oinarrituta. Edo esperimentazioa lantzen jarraitzea han-hemenka, adibidez, *Mr. Señora* eta *Miss Kabaret* modukoak onduz. EHAZEk martxan jarri berri duen argitalpen zerbitzua ere aipatzeko modukoa da: bertan liburu formatuan argia ikusi duen *Arrastoak* antzezlana, gidoiaz gain argazkiak eta dramaturgiarako oharrak ere badituena.

Narratiba nagusi da euskal literaturan, bai idazketan, baita argitalpen eta irakurketan ere. Poesiak badu bere irakurlegoa, txikia izanda ere fidela dena. Antzerkia... Nork irakurtzen du antzerkia? Antzerkia ikusteko eta entzuteko ez da, ala? Kontua da hasi direla ohikoa baino liburu gehiago argitaratzen eta gustura hartu dugu joera aldaketatxo hau. Antzerki sortzaile batzuk hasi dira antzezlanak taularatu ondoren testua argitaratzen obra horren azken pauso bezala: *Erleak, satorrak, beleak* edo *Koadernoa zuri* kasu, tradizionalki egin izan denaren kontra.

Bi ahizpa dira liburu honetan narrazio bihurtutako jatorrizko antzezlanaren protagonistak. Arantxa Iturbek egindako moldaketa irakurrita gomendagarria litzateke egunotan Euskal Herriko hainbat lekutan izenburu berarekin taularatzen ari diren antzezlana ere ikustea. Ama hil berria da eta 20 urtez desagertuta egon den Begoña herrira bueltatuko da, amaren etxera, eta bertan Arrate ahizpa nagusiarekin, bere haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenekin eta bere amaren itzal luzearekin topo egingo du.

Ekitaldi eta agerraldiak kapitulu bihurtu ditu egileak, baina kapituluetako izenburuek, narratzailearen kontaketak eta pertsonaien arteko elkarrizketek ekintzak irudikatzen lagunduko digute. Iluntasuna, hoztasuna, hauskortasuna, mina, beldurra, isiltasuna, haserrea eta tristura aurrez aurre jarriko dira orriotan ametsekin, hitzekin, maitasunarekin, adiskidetasunarekin, elkartasunarekin, pozarekin, askatasunarekin eta konplizitatearekin.

Arantxa Iturberen ahotsa irratian entzutea edo bere testuak irakurtzea beti da plazera. Gustura irakurriko nituzke/ditut Agurtzane Intxaurragarekin idatzi dituen beste antzezlan argitaragabeak eta etortzeko dauden beste guztiak.

Itxaro Bordak *Milia Lasturkoren eresia*ren berridazketa gogorarazi dit lan honek, *La casa de Bernarda Alba*-ren oihartzuna duelako, eta Bordak egin bezala *Milia Lastur on the road* testuan, Arantxa Iturbek egindako Bernarda Albaren berridazketa, moldaketa edo gaurkotze lana irakurtzera (eta ikustera) gonbidatzen zaituztet. ■

Arantxa Iturbe Maiz idazlea (Alegia, 1964).

» TELEGRAMA

Apirilaren 27a gorriz markatuta daukate Sopelan: **Plaza Beltza kulturgunea** zabalduko dute eta ondorengo egunetan Nebula Selaktah eta Voltaiaren musikak astinduko ditu inguruak *STOP* Euren umeak elkarrekin liskarrean aritu ostean batek bestea zauritu du. Baina ei, gurasoak horren gainetik daude, dena konponduko dute... ala ez? **Jainko basatia** antzezlanak argituko du: apirilaren 28an Elorrioko Arriola Antzokian *STOP* Kaiser Sose? Bai, hemen da: **The Usual Suspects** filma eskainiko dute Donostiako Antzoki Zaharrean apirilaren 29an 90eko hamarkadako **True Romance** klasikoarekin batera *STOP*

» DISKOA

Bizi era bat betirako

Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Funeral económico
EL DESVÄN DEL MACHO
Discos Alehop, 2017

Talde gutxi dira Euskal Herrian –besterik badago– inor gutxi alboan duela hain luzaroan musikaren itsasoan bakardadean arraun egin eta egiten duena. Arrasatekoa da El Desvän del Macho baina eskaintzen duena ezagututa ez da erraza haren jatorria antzematea. Horretarako halabeharrez historian atzera egin beharra dago: 80ko hamarkadan sortutakoa da taldea, punkaren gerizpean –eta askotan erasopean– existitu zen eszena aberats baina gutxietsitakoaren errautsetatik. Siniestroak, post-punkak ziren El Desvän-en aurrekari Matrona Impudica eta Jugos de Otros-en gisako taldeak eta Stranglers zein The Cure jarraitzeko gai baziren ere, 90eko hamarkadan Sonic Youth-en eskaintzarekin txunditzeko eta berau gurtzeko azkartasuna izan zuten. Beste batzuek baino lehenago artaldetik kanpo egin zuten, bide propioa hartuta arriskatu eta guztia kontra bazuten ere, aurrera egin zuten beti ideiak garbi eta egiten zutena maitatuz.

Taldearen sortzaile eta gidaria beti izan da bera, JG Izcue alegia. Aipatutako taldeak erditzeaz gain, sasoi luze batean Cancer Moon taldean ere aritu zen eta lagun zuen Leopoldo Maria Paneroren hitzak musikatuz *El Leprosario* sortu zuen Iñaki Bengoarekin batera.

Hala ere, 1989tik gaur egunera arte El Desvän del Macho hirukotearekin buru-belarri dabil eta tarteka agertokietan ikusten ez baditugu ere, zuzeneko irmoak egiten jarraitzen du taldeak. Egunotan *Funeral económico* kaleratu du, bosgarren disko luzea.

1993an *Hermana violencia* kaleratu zuen post-punkaren birtuosismoa eta iluntasuna pop-arekin ezkondu eta industrialaren aurrekaritzat ere har genezakeena, Nuevos Medios diskoetxearekin. Hiru urte geroago, Alehop diskoetxearekin bizitza osorako ituna eginda, *Lumbar* kaleratu zuen jantzi pop-rockeroagoarekin baina intentsitatea eta ezinegona barne dituena. Lozorro luzearen ostean, 2008an *Vida a partir del huevo*-rekin apurtu zuten oskola eta ordura arteko disko entzuterrazena kaleratu, nahiz eta zuzenekoetan post-hardcore kutsua gehitu. Hala, 2013ko *Simplicis* diskoak aurreratutako eraginak hartu zituen aldean (Today is The Day, Unsane...).

Orain *Funeral económico* apaldu da gordintasunean, ez ordea hitzetan –taldearen marka dena– eta berezko erritmo aldaketa jolas, dotorezia, kabalkada eta baxu sarkorrari gehitu dizkio Primus-en kadentziak (*La castidad del omóplato*), Mike Watt-en aberastasuna (*Balido felpudo*), post-rockaren esentzia (*Ustel edo la vaca*) zein patroi rockeroa (*Petrogrado*), besteak beste.

Eta ezin aipatu gabe utzi diskoaren azala, kontrazala eta barnea Luis Duran artista handiaren komiki batek osatuta dagoela. Eta biniloak CDa ere du opari. ■

Arrasateko El Desvän del Macho taldeko kideak.
AITOR ZUBIA

Metal kapital

BURU BELTZ FEST

Suhuskunen, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean.

Andrea Zubozki

Lekuko ardi arraza baten izena duen festibalak, bigarren edizio arrakastatsua lortu du, dudarik gabe. Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, hainbat taldek Suhuskuneko herriko gela inarrosi digute. Xehetasunetan sartu aitzin, argitasun pixka bat gertakari honi buruz: 2010eko hamarkada horren hastapenean, Suhuskune, metalaren kapital izendatzen dute bertan entsaiatzen duten musika taldeek. *Iparraldeko hitza*-ko 2011ko martxoko artikulu batean, lehen orrialdea betetzen dute metaleroek Suhuskuneko plazan. Death metal-etik post hardcore-raino, arrabotsaren maitaleek haien kapitala aurkitu dute. Buru Beltz Fest festibalak Suhuskune herriaren historia oraindik urrunago eramaten digu, bi eguneko metal festibala bertan antolatuz.

Larunbatean egin nuen itzuli bat, eta lehendabizi, bezperan aritu zen Meltdown talde hernaniarrari buruz konplimendu frango entzun nituen (beste aldi batean ikusteko).

Larunbateko egitaraua bi bertsio talderekin hasi zaigu; Bu ta gaz (su ta gar) eta Black Xalbbath (Black sabbath. Iron Eta Maider-eko musikarien proiektu berria). Metaleroen nostalgia nahiko ongi nahasten zen garagardoarekin! Ondotik, Kuartz stoner taldeak, Urdamendiko (Suhuskuneko mendi bat) basamortuetaraino bidaia eginarazi digu. Gaualdian aitzina, Prophetic Scourge-ek zafraldi polita eman digu, death metal ultra tekniko eta ilun batekin.

Zarauztarrek segitu dute ondotik; Anestesia. Erran gabe doa jendea horren zain zela. Mikel Kazalisek bere motozerra piztu duelarik, publikoa elkarri pogo-kolpeka hasi da. Atabalaren kolpeak pok-pok-pok-pok-pok, Suhuskuneko urtzateietako tirokadak baino bizkorrago ibiltzen ziren. Infernua ordu eta erdiz. Anestesiaren kontzertu bat, beti bikaina da, harrigarria. Talde horrek zerbait profetikoa darama.

Sekula utzi ez duten arren, oholtza gainean agertzen diren aldi oroz, bersortze baten itxura dute. Eta publikoa beti liluratuta gelditzen da talde horren aitzinean, begiak zabal-zabalik. Ez naiz hori baino gehiago luzatuko Anestesiari buruz, ez dut uste nehorren konbentzitzerik baden!

Ibiakoitzeko gaualdiari bukaera eman dio Xixtor of a down taldeak (System of a down-en bertsioak). Haiek ere oso onak. Ahanzten nuen bertsio talde bat zela eta egia esan "SOAD" baino askoz hobeto aritzen dira oholtza gainean!

Buru Beltz Festek programazio ederra eta kalitatezkoa eskaini digu. Suhuskundarrek lo egiten ahal dute lasai, kapitala biziko da! ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osatu Andoni Egañak 2015ean Villabonan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke.* Gaia: *Haurtzaroan ametsak sortu, helduaroan burutu edo behintzat saiatu, eta zahartzaroan, zer?*

Ume nintzela ai zenbat amets
____ finak alafede!
Garai haietan ilargiraino
iristea nuen ___.
Pentsatzen nuen "Hirugarrengo
mailako ____ hau nere"
neure burua _____ nuen
ia Atotxan _____.
Hamaika amets egin _____
ta ez da bete batere.

Gazte garaian plazarik ____
hasi nintzela kantuan
amets _____ eiten nituen
izarapean, _____.
Gero txapelak iritsi ziren
_____ eman ta hartuan.
Ez dakit ___ egin zidaten
eduki hori kontuan
ametsa hustu _____ baita
betetzen den momentuan.

Ume garaian _____
izaten da irakiten
helduaroan jarduten dezu
zeure ____ eragiten
ta zahartzaroan ilusioen
mundutik _____ irten?
Ez naiz halako gizon ____
ez horren pertsona kirten
zahartuta ___ segi nahi nuke
amets _____ egiten.

O	U	R	M	N	G	V	K	M	O	E	D	I	S	A
D	S	L	F	A	O	A	U	L	D	N	D	R	D	O
B	P	T	E	L	I	N	N	A	N	J	I	E	C	I
T	E	J	R	D	G	B	F	N	C	H	I	K	X	S
U	D	R	N	E	C	A	E	E	I	S	N	A	J	U
A	H	A	R	F	B	I	J	I	E	K	S	Z	S	L
P	H	L	C	E	J	H	C	J	R	I	B	J	T	I
C	C	G	I	G	G	A	K	U	E	T	F	M	E	V
A	L	T	U	A	N	E	A	A	V	A	L	Z	M	B
I	D	E	T	S	T	R	K	Z	I	G	V	E	A	V
K	F	T	S	A	O	E	S	A	F	R	C	E	A	I
U	Z	S	N	S	H	G	E	L	R	E	R	O	O	V
S	L	I	U	O	V	I	N	P	H	Z	J	E	J	B
T	B	A	J	N	I	T	U	E	N	G	L	P	B	R
E	F	U	A	J	F	E	O	I	B	P	S	A	D	G
N	F	J	C	B	R	N	D	G	D	L	D	O	I	R

Sudokua

Erraza

8	2	6	4	7	5	1		
		4			1			
					8			2
5	4				6		2	
9	1			2		7		
6							1	
			9	4	7	3		1
		5		6			9	
	9			8				6

Zaila

9			2		7			
5				1		8		
		1	8				6	2
2	4					6		
		6				5		
		7					2	3
7	9				4	2		
		3		7				5
			1		6			9

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:
1. Zerbait eskuratzeko eskubidea ematen duen txartel. Egurra. 2. Irarlearen eginkizun. 3. Toki hartan. Hertsia. 4. Otoitz egiten. Estrontzioaren ikurra. 5. Zaren hori. Basoa, oihana.
6. **Argazkian**. Musu. 7. Uste izan.
8. Haur txiki. Tetelea, kaikua.

Goitik behera:
1. Nahigabe, atsekabe. 2. Atzemana.
3. Guztiz txiki. Samin, oinaze.
4. Oinarrizko edari. Jario, jariatu.
5. Biskatu. 6. Itsusi. Dago. 7. San Martin ..., Nafarroako udalerria. Ogi biribil eta txiki. 8. Piztu, irazeki. 9. Tresna.

Ebazpenak

Ume nintzela ai zenbat amets | **amets** finak alafede! | Garai haietan ilargiraino | iristea nuen **xede**. | Pentsatzen nuen "Hirugarrengo | mailako **neska** hau nere" | neure burua **ikusten** nuen | ia Atotxan **errege**. | Hamaika amets egin **nituen** | ta ez da bete batere. | Gazte garaian plazarik **plaza** | hasi nintzela kantuan | amets **handiak** eiten nituen | izarapean, **altuan**. | Gero txapelak iritsi ziren | **bertso** eman ta hartuan. | Ez dakit **onik** egin zidaten | eduki hori kontuan | ametsa hustu **egiten** baita | betetzen den momentuan. | Ume garaian **ilusioa** | izaten da irakiten | helduaroan jarduten dezu | zeure **lanei** eragiten | ta zahartzaroan ilusioen | mundutik **zergatik** irten? | Ez naiz halako gizon **etsia** | ez horren pertsona kirten | zahartuta **ere** segi nahi nuke | amets **berriak** egiten.

Zaila

9	3	8	2	6	7	1	5	4
5	6	9	2	4	1	3	8	9
4	7	1	8	9	5	3	6	2
2	4	9	6	5	3	1	7	8
3	8	6	7	2	9	5	4	1
1	5	7	9	6	4	8	2	3
7	9	5	3	8	4	2	1	6
6	1	3	9	4	7	5	8	5
9	3	7	6	1	5	4	9	7

Erraza

8	2	6	4	7	5	1	3	9
1	3	4	9	6	2	7	5	8
7	9	5	3	8	4	2	1	6
3	8	6	7	2	9	5	4	1
2	4	9	6	5	3	1	7	8
4	7	1	8	9	6	3	5	2
5	6	9	2	4	1	8	9	7
9	1	3	5	7	4	6	8	5
6	5	8	1	3	7	9	2	4



Eskuin-ezkerra:
1. Bonu, Zuza. 2. Iraitan.
3. Han, Ixia. 4. Otoitza, Sr.
5. Zu, Saroia. 6. Mamut, Pot.
7. Irudiki. 8. Nimi, Alua.
Goitik behera:
1. Bihozmin. 2. Oratua.
3. Nano, Min. 4. Ur, Isuri.
5. Likatu. 6. Zatar, Da. 7. Unx, Opil. 8. Isiotu. 9. Apartaua.

Heloise Nio. Etorkinen aldean

Parisera helduriko etorkinen ibilbideak eta bizipenak askotarikoak izanda ere, elementu bat dute gehienek partekatzen: frantsesa ikasteko beharra. Iritsitako herriko hizkuntza menperatzeak errazten duelako trabaz beteriko bidea. Behar horri erantzun nahian, Thot izeneko frantses hizkuntza eskola sortu zuen Parisen bizi den Heloise Nio kanboarrak, beste birekin batera. Etorkinen egoera okertuz joango dela erranik, elkartasun sarea antolatzeko premia ikusten du.

"Denok egin dezakegu zerbait etorkinen laguntzeko"

Jenofa Berhokoirigoin
ARGAZKIAK: LÉA DOMENACH

Tituludunak xede

"Parisko lizeo okupatu batean nengoen, laguntzaile gisa esku ukaldi bat ematen. 500 bat errefuxiatu eta asilo eskubide eskatzaile ziren bertan bizi. Une horretan loratu zen frantses hizkuntza eskola bat sortzeko ideia. Anitzek dituzte frantses kurtsoak proposatzen, baina guk eskola bat genuen sortu nahi, nazioartean eta Estatuaren mailan ezaguturiko diploma bat eskainiko zuena. Behar horri erantzuteko sortu genuen Thot eskola 2016an".

"Non ikas dezakegu frantsesa" galdera usu entzuten duzu.

Eskaera izugarria da eta Thot eskolak parte batean erantzun arren, ez dugu guztia asetzen. Ikastaro honetan 80 kandidatura onartu ditugu, jakinik 45 toki ditugula. Lehen ikastaroko lekuak 10-12 orduz bete ziren, bigarrenerako bost orduz eta azken honetan 50 minutuz! Kurtso intentsiboak proposatzen dabiltzan irakasle profesionalak ditugu. Lau hilabetez 160 orduko kurtsoa. Horrez gain, eguneroko beste beharretan ere laguntzen ditugu: administraziorako, arlo juridikorako, profesionalerako edota emozionalerako. Horrela kurtsoan direnean, beste kezkek toki gutxiago hartzen dute izpirituan. Hori erranda ere, dena konpontzen dugula erraiteko pretentsiorik ez dugu.

Izan paperekin ala paper gabe, denak onartzen dituzue?

Papergabeentzat konplikatuagoa da. Berez gu asilo babesa lortzeko desmartxan direnekin gara harremanetan. Hots, babes eskubidea eskatzen dabiltzanekin, errefuxiatuekin edota dublinatuekin, hau da, Europara sartzerakoan hatz markak Europako beste herri batean utzi dituztenak eta Dublineko hitzarmenari segi, asilo eskaera herri horretan egin behar izaten dutenekin. Asiloaren errefusa baldin badute, papergabeekin gara ikastaro bukaeran, baina hori ez da arazo bat.

Orokortasunik ezin dela egin jakinda ere, Frantziara heltzen diren etorkinen sentimendua zein da?

Bakoitzak du bere ikuspuntua eta ibilbidea. Hala ere, nahiko orokorra den sentimendua da ez dutela sekula amore ematen! Nahiz eta sekulakoa ikusi eta bizi izan, beti aitzina doaz. Herria utzirik, sekulako bidaia luze hori eginik, ondotik, Frantziako fase lazgarria dute pairatu behar. Sekulakoa da eta ezin dugu geure burua haien lekuan imajinatu. Batzuetan kexu dira, zaila zaielako, baina hala ere beti zutik. Batzuk haserre dira, entzun izan zutelako askatasunaren eta berdintasunaren herria dela Frantzia, baina azkenean ez dutelako batere hori bizi. Beste batzuek diote Frantzian direnetik

160 orduko hizkuntza ikastaro bat eskaintzen die etorkinei Thot eskolak. Lau hilabeteren buruan, hizkuntza gaitasunaz gain Frantzia eta nazioartean ezaguturiko diploma bat ere dute jasotzen ikasleek.

dena ongi doala, urrezko pertsonak kausitu dituztela. Behin, bati galdetu nion zerk markatu zuen Frantzian eta poliziak zintzoak direla izan zen erantzuna. Halakorik ezin dut erran, baina ulertu behar da Afganistanetik zetorrela, Bulgariatik eta Serbiatik pasa zela, etorkinak hiltzeko poliziak txakurrak bidaltzen dituen herrietatik. Gure ikasleak zailtasun guztiez kontziente dira, ageri ez den arrazakeria ikusten dute, baina elkartasuna ere bai. Noski, kanpoan lo direnentzat biziki zaila da, akiduraz ezinduak dira.

Komunikabide handiak behatuz gero, frantsesek etorkinik ez dutela nahi pentsa daiteke.

Thot sortzerakoan kasu egiteko aholkua eman ziguten anitzek. Baina azkenean, ez dugu kasik sekula erasorik ukan, betiko "frantsesa ez dakiten frantsesentzat zer egiten duzue?" esaldiaz aparte. Egia erran, baikorki harrituak izan gara, sekulako harrera ona jaso genuelako: 40 egunez 66.000 euro bildu genituen herri finantzaketari esker! Askok eskertzen ziguten, etorkinen alde zerbait egiteko aukera eman genielako. Laguntzaile izateko eskaerak ditugu ia egunero. Instituzioen partetik ere ez dugu inoiz interesik eza sentitu. Beraz, uste dut hala ere etorkinen egoeraz axola dutela frantsesek. Nahiz eta aurkakoak anitz aipatu, gutxiengoa direla uste dut. Baina, harrera izpiritua nagusitzen dela erraiteak ez du erran nahi etsaigorik ez dela.

Zer nolako geroa ikusten duzu etorkinentzat?

Egia erran, biziki beldur naiz haientzat. Hasteko, Frantziako hauteskundeek zer emanen duten ez delako argi. Nahiz eta alderdi batek guztia erabat ezin aldatu, beldurgarria da. Hotzikara sortzen dit jakiteak Hungariak etorkinak sistematikoki atxilotzen dituela. Etorkinen aurkako politikak pasaraztea lortzen dute gobernuek. Adibidez, lehen Italiako itsas armadak Mediterraneotik ateratzen zituen, orain Libiara edota Turkiara bidaltzen ditu. Asilo babesaren onartze tasa %30ekoa da eta iduriz 2017an are ahulagoa izanen da. Geroa ez dute alaia ukanen, giroa urtez urte okertuz doalako. Haien herrietara bidaltzen dira geroz eta gehiago, ihes egin behar izan duten herrira.

Horren parean, zer egin?

Beldurgarri diren politika horien aurrean eta menperatzen ez ditugun gai horien aurrean segurtasuna ematen digu guk geuk zerbait egiteak. Thot eskola sortuz ikasi dut bakoitzak egin dezakeela zerbait. Milaka eta milaka etorkin daude egoera zinez kaskar eta beltzean, baina badakit ere horietarik batzuk gure eskolan direla eta aterako direla edo behintzat, hizkuntza jakinik egoera hobe batean izanen direla. Gobernuek edota aurkakoek diotenaren parean edo laguntza beharraren handitasun izugarriaren parean ez da durduzatu behar. Denok egin dezakegu zerbait etorkinen laguntzeko. ■

Maite Iturbe bandako zuzendaria izan da atxilotzen aurrena.

“Turismoaren apologia” leporatuta EITBko kupula atxilotu dute

Polizia-operazio garrantzitsua egin dute aste honetan Euskal Herrian: EITBko buruzagi gehienak eta informatiboetako arduradun nagusiak atxilotu dituzte, “turismoaren apologia” egitea leporatuta. Poliziaren arabera, atxilotuek hainbat ekintza goratu dituzte, azkenaldian herritarrak izutu dituztenak, hala nola, Gaztelugatxeko turisten inbasioa edo Donostiako pintxoen prezioa. Operazioan parte hartu duten iturriek baieztatu dutenez, atxilotuek asmoa zuten ostalari-komando berri bat eramateko Ipar Euskal Herritik Zarautzera, hango espazio publikoaren kontra atentatzeko terrazen bidez. “Oso azkar erradikalizatu dira”, azaldu digu polizia batek.

SAREAN ARRANTZATUA

PPren logo berria

Ahate harresitik ez dira pasako!

Frantziako hauteskundeetan eskuina garaile, eta bigarren, eta hirugarren

Marine Le Pen super-eskuineko hautagaiak lortu du Frantziako presidentetzarako hauteskundeetako bigarren itzulian lehiatzeko txartela, eta horri esker badakigu Hollanderen oinordekoa Emmanuel Macron zentro komertzialeko hautagaia izanen dela. Kanpoan geratu da François Fillon besterik gabe eskuinekoak. Analistak bat datoz: “Garrantzitsuena da aukera desberdin asko izatea, demokrazia indartzen du horrek. Ea hurrengorako…”.

Bestalde, Les Republicans bai PS harremanean jarri dira jada EAJrekin, *Ez ustekaberik ez ostiarik: nola irabazi hauteskundeak beti* jeltzaleen ikastaro ospetsuan izena emateko zer egin behar den galdezka.

Le Pen, Fillon eta Macron, datozen lau urteetan izango duten aurpegiarekin.

ARGIA

INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ALTZA PORRU

Eraman etxera Jakoba Errekondoren jakintza puntako 8 marrazkilari hauek umorez komiki bihurtuta



EROSI 101 ORRIKO KOMIKI LIBURUA KOLORETAN

19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak azaltzen ditugun bitartean, komikiak sortuko ditugu, zuzenean!

✆ 943 371 545
www.argia.eus/denda
edukia@bizibaratzea.eus

ARGIA
argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus